

Berrigara

BERGARA • ELGETA • ANTZUOLA / Egubakoitza / 2002ko irailaren 6a / 507. zenbakia

AGUR, BETIKO, AGUR!

Uda sasoiaren ondoren
barruko igerilekuak
ez dituzte zabalduko,
eta kirolgune berriko lanak
udazkenean hasiko dira

UDALZAINGOA: HIRU AGENTE BERRI LANEAN/7 • FUTBOLA: REALA-GIRONDINS GAUR AGORROSINEN/10


朋 自 有 不 手

Euskara "txinoa" bada zuretzat,



Ni txinin, txirrin,
txirrinduila, dulai...

UDAL EUSKALTEGIAK ...



Ni txirrinduan nabil.

...eta euskara zurea egungo duzu.

2002 - 2003 EUSKERA IKASTAROAK

HABEren dirulaguntzaz

BERGARAKO



UDAL EUSKALTEGIA

- **Eskaintza:** Euskalduntze eta alfabetatze maila guztiak, EGA eta EGAtik gorakoa. Egokitutako taldeak: guraso, merkatari, enpresa... MULTIMEDIA gela.
- **Erritmoak:** Eskarien arabera. Galde ezazu!
- **Bulego Ordutegia:** Goizez: 8:30 - 13:00. Arratsaldez: 14:30 - 18:30.
- **Matrikulatzeko epea:** Irailaren 2tik 20ra.

- 16 urtetik gorakoentzat.
- Bekatze sistema eta diru laguntzak ditugu.
- 20 urte zuekin, egunez egun, euskaraz.

BERGARAKO UDAL EUSKALTEGIA
Zabalotegi, 13
BERGARA
Tfnoa.: 943 76 44 53
berg.eusk@udal.gipuzkoa.net
berg.euskudal@euskalnet.net

ATREBENTZIAEZPADA/ Adituek opor osteko estresaz berba egiten dabe. Zuk izaten dozu holakorik?




ELENA MUXIKA
60 urte



IÑIGO UNAMUNO
40 urte



MONTSE LUCEÑO
24 urte



MARCEL MURARU
28 urte



ARANTXA AZKARATE
68 urte



MAITE GANTXEGI
23 urte

Ez, ez daukat, aurten jubila-
lau naiz-eta. Beste urte
batzuetan, zeozer igarri
izan dot; estresa danik ez
neuke esango, baiña kostau
egituen da lanian hastia.
Aldaketia igarri egituen da.

Izatekotan be pasauta euki-
ko neuke, oin dala hiru aste
hasi nitzan-eta lanian. Bai-
ña ez neuke estresa danik
esango, pereza pixka bat
da, oporretan hobeto egoten
dalako.

Ez, gaiñera egituen daberen
eguraldixakin lanian ego-
tiak ez dost pena haundirik
emoten. Eguraldi ona egin-
go baleu pena haundixagoa
eukiko neuke, baiña estre-
sik ez.

Ondiokan ez dot oporrik
hartu, hortaz, opor osteko
estresik be ezin euki. Opo-
rretan egon eta gero pere-
za pixka bat bai emoten dau
lanian hastiak, baiña apar-
tekorik ez.

Estresa gehixegi pentsa-
tzen jat. Ni be lehenago etxe-
tik kanpo lan egindakua
naiz, eta berriro hastiak
pereza pixka bat emoten
dau, baiña pozik be buelta-
tzen nitzan.

Momentuz ez, behintzat,
astelehenian hasi nitzan
eta ez dot apartekorik iga-
rri. Gaiñera, irakaslia naiz
eta umiak be ondiokan opo-
rretan darenaz, ba, suabe
hasi gara.

TXALOAKETATXISTUAK



TXISTUAK PIBOTEAK JARRI BEHARRA Herriko hainbat kaletan,
zebrabideak dauden guneetan, hain justu, piboteak jarri behar izan
ditu Udalak oinezkoen bide hori babesteko. Kontua da autoa apar-
katzeko dagoen arazoagatik, akaso, hainbat gidarik zebrabidearen
gain-gainean laga izan dutela maiz autoa. Horregatik eta autoa ez
aparkatzeko hartu dute argazkiak argi erakusten duen neurria. /M.B.

ETABARRUAN...

ASTEKO BERRIAK /5

KIROLAK /11

KULTURA /12

Ekialdeko saihesbidea

Irailan irekiko
dute saihesbide
berria. Datorren
astean irekitze
eguna erabakiko
dute Diputazioan.

Ligako lehen partidua

Bergarako prefe-
rente futbol tal-
deak liga hasiko
du domekan
Pasajesen aurka,
Agorrosinen.

Ageriko Pintura Sariketa

Etzi, Ageriko
Pintura Sariketa
izango da, Beart
elkarrekin Udala-
ren laguntzarekin
antolatuta.

ASTEKO DATUA

5

ABUZTUAN IZAN DITUGUN EGUN EGUZKITSUAK

Ezin esan aurtengo uda ona izan
denik. Abuztuan, euria izan dugu
gehiago eguzkia baino: egun eguz-
kitsuak bost izan dira, eta horiek,
ez oso garbiak; euria, berriz,
hemeretzi egunean egin du.

BESTEKE SANA

“

Garzon epailearen
erabakiak eta
Gasteizko gobernuak
zuzendutako Poliziak
lege eta auto

espainiarrak betearazteko erakutsi
duten entusiasmoak galdera ugari
sorrarazten dituzte; norbaitek
erantzun beharko litzuzkeen galdera
ugari epaile, polizia eta agintari ez
garenok, hau da, gizarteak, zeri
eutsi jakiteko.
Garzonek dio HB-EH-Batasunak 24
urteetako ibilbidean erabilitako ikur
eta elementu errebindikatiboekin
zerikusia edo antzekotasunik duen
ezer ezin dela erakutsi. (...) Puntu
honetara iritsita, galderak pilatu
egiten dira: Aberrri Egunean,
esaterako, etxeko leihoan Ikurrina
zintzilikatzen badugu legaltasunetik
kanpo arituko ote gara? Ertzaintzak
banaka-banaka kenduko ote ditu?...

MARTIN GARITANO
Gara/02-09-04

BERAIEKDIÑO/E/ Maite Aristegi



*Euskaldunok
bildu ala
amildu?*

U da-buelta zakar hau
pixka bat arintzeko
edo, erretratu zahar
batzuei begira jardun
dut. Hain zaharrak dirudite
ezen! Eta lau urte baino ez dira
beteko datorren astean! Zelako
poza aurpegietan, ilusioa
begietan. alderdiak berriz
elkarri eskua
emanda, sindikatu
eta hainbat giza
talderekin batera
bide berari ekiteko,
euskaldunon
nahiari erantzun eta
benetako bakean
bizitzeko asmo
sendoz.

Bai, Lizarrako
ituna sinatu genuen
egun ederraz ari naiz, euskal
herritar gehienok sinatutako
irtenbiderako bide bakarraz.
Ondoren, zela ahaztu treguaren
haize boladak barku horri
emandako bultzada: herri hau
martxan jarri zen, sortzen,
biltzen, etorkizuna eraikitzen.
Baina, berriz ere... kaka
zaharra! Hainbesterako
kapazitatea dugun Herria ez
ginen izan behingoz Historiari
itzuli bat emateko gai. Eta
gaur, non gaude? Inoiz izanda-

ko Espainiako agintari lotsaga-
beenek bidalitako trumoi eta
oinaztuekin Euskaldunon
barkua noraezean, tentsio eta
kezka larriz zakartutako
itsasoan murgilduta. Baina ez
al gara konturatzen ideiak,
gure izaera bera ere legez
kanpo jartzen ari direla?

“Baina ez al gara
konturatzen
ideiak, gure
izaera bera ere
legez kanpo
jartzen ari
direla?”

Martxa honetan
sentitzeagatik
kartzelaratuko
gaituztela? Eta
konponbiderik nahi
ez dutenen algarara-
ko anaiak anaien,
arriben aurka
jartzen segi behar
dugu? Egunotan
Hego Afrikako
ereduaz entzun
diogu Ibarretxeri. Samina
gaindituz, elkertasuna eta
elkarrizketa etorkizuna
ereiteko. Horixe baietz! Baina
beldur barik, benetan bustita!
Ez ahaztu jauna, Mandelak beti
esandakoa: justizia lortzeko
beste erremediorik ez zegoen
bitartean ez zuela borroka
armatua gaitzetsiko. Bila
ditzagun bada azkar erremedio-
ak! Herri honek beste Lizarra-
Garazi bat gura eta behar du,
oraingoa behin-betikoa.

Berrigara

Irizar Jauregia • Barrenkalea 33
20570 BERGARA
Tel.: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Posta-e: berrigara@goiena.com

ZUZENDARIA
Edu Mendibil
ERREDAKZIOA
Monika Belastegi,
Aintzane Irizar
MAKETAZIOA
Iñaki Iturbe

PUBLIZITATEA
Mireia Larrañaga
KOLABORATZAILEAK
Luis Mari Agirre
Maitane Arizabaleta
Juan Martin Elexpuru
Miguel Angel
Elkorobereibar

LEGE-GORDAILUA
55-50/91
ISSN
1130-6599
TIRADA
5.900 ale

BERRIGARA / KONTUOLA / GOIBEKOKALE • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak



Eusko Jaurlaritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Bergarako
Udala



Antzuolako
Udala



Elgetako
Udala

GUARDIAKOFARMAZIAK

- EGUBAKOITZA, 6**
PUY, Barrenkalea 25. 943 76 16 87
- ZAPATUA, 7**
CAMACHO, Oxirondo 4. 943 76 11 74
- DOMEKA, 8**
CAMACHO, Oxirondo 4. 943 76 11 74
- ASTELEHENA, 9**
GUALLAR, San Antonio 5. 943 76 11 05
- MARTITZENA, 10**
PUY, Barrenkalea 25. 943 76 16 87
- EGUAZTENA, 11**
CAMACHO, Oxirondo 4. 943 76 11 74
- EGUENA, 12**
PUY, Barrenkalea 25. 943 76 16 87

TELEFONO JAKINGARRIAK

- OSASUNA / LARRIALDIAK**
- Anbulatorioa (txanda) 943 76 24 40
- Bergarako udaltzaingoa 943 77 91 06
- Antzuolako udaltzaingoa 943 76 62 46
- Ertzaintza 943 76 53 40
- Osasun etxea 943 76 24 40
- Asepeyo 943 76 16 43
- Pakea 943 76 13 49
- Angiozarko medikua 943 78 90 27
- Antzuolako medikua 943 76 62 23
- Odol emaleak 943 76 16 24
- Alkoholiko Anonimoak 943 76 51 06
- GARRAIOAK**
- Taxiak 943 76 19 50
- UDALA**
- Bergarako Udaletxea 943 77 91 00
- Antzuolako Udaletxea 943 76 62 46
- Udal Artxiboa 943 77 91 32
- Igerilekuak 943 76 20 51
- Kultura etxea 943 77 91 58
- Liburutegia 943 77 91 62
- Kiroldegia 943 76 56 41
- Mizpirualde egoitza 943 76 13 68
- BESTELAKOAK**
- Epaitegia 943 76 14 92
- Erregistroa 943 76 13 15
- Jardun 943 76 36 61
- Idolaz 943 76 65 08
- Erretiratuaren etxea, Bergara 943 76 21 40
- Antzuolako erretiratuaren elk. 943 76 62 71
- Postetxea 943 76 26 85
- Bedelkar 943 76 04 68
- Akulu AEK 943 76 05 18
- Udal Euskaltegia 943 76 44 53
- Bergarako notariotza 943 76 10 73

MEZAK

- San Pedro**
Domekak: 09:30, 12:30.
Zapatuak eta lanegunak: 19:00.
- Sierbak**
Lanegunak: 19:15.
Zapatuak: 19:00.
Domekak: 11:30, 13:00.
- Osintxu**
Domekak: 12:30.
Zapatuak: 19:00.
- Elosu**
Domekak: 10:30.
- Ubera**
Domekak: 10:30.
- San Juan**
Domekak: 11:00.
- Elorregi**
Domekak: 10:30.
- Labegarieta**
Domekak: 11:00.
- San Lorentzo**
Zapatuak: 20:00.
- Angiozar**
Domekak: 11:30.
- Moja**
Zaharrak
Lanegunak: 9:00.
Zapatuak: 11:00.
- Mizpirualde**
Lanegunak: 11:45.
Zapatuak: 17:30.
- Antzuola**
Domekak: 09:00, 11:30.
Zapatuak eta lanegunak: 19:30.
- Uzarraga**
Domekak: 10:00.

URTE-MEZAK

- Santa Marina**
Hileko 2. astean, domekan, 11:30ean.
- San Pedro**
Hileko 3. astean, domekan, 12:30ean.

OHARRAK

1948AN JAIOTAKOAK

1948an jaiotakoan afaria hilaren 28an Txuringon. Izenematea, Euskadiko Kutxan (41 euro).

SAN MARTIN IKASTETXEA

Klaseak astelehenean, hilak 9, hasiko dira 3 urte eta 6. maila bitarteko ikasleendako, 9etan. 2 urtekoak hilaren 12an hasiko dira.

IPINTZA INSTITUTUA

DBH kurtso hasierako aurkezpena astelehenean, hilak 9. Lehen maila, 11etan; 2. maila, 11:15ean; 3. maila, 11:30ean, eta 4. maila, 11:45ean. Batxilergo-koa: 11etan lehen maila eta 11:30ean bigarrena.

MIGUEL ALTUNA INSTITUTUA

Hilaren 9an ikasturte hasiera, 10etan heziketa zikloetako 1. mailako ikasleendako, 11etan 2. mailako ikasleendako eta 16:00etan gaueko ikasleendako.

ARANZADI IKASTOLA

Haur hezkuntzako ikasturte hasiera astelehenean: 3 urtekoak 10etan eta 4 eta 5 urtekoak 9:30ean. Lehen hezkuntzakoak, 9etan. Eskola garraioa martxan.

HHI-EPA

Matrikulazio epea hilaren 20ra arte, Irizar jauregian. 943 76 44 52.

JARDUNENAGENDA

TRIKITI ESKOLA ABIAN

Jardunen trikiti eskolak urriaren lehen emango dio hasiera aurtengo ikasturteari. Soinu eskolak martitzen, eguazten eta zapatuetan izango dira eta pandero-arenak astelehen eta eguenetan. Izena ematea irail erdialdera arte zabalik. Argibide gehiago 943 76 36 61 zenbakian.

URBANOENORDUTEGIA

San Lorentzo / San Juandik irteerak
07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00, 16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20 eta 21:00.
GERALEKUAK: San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorentzo (Soraluze aurrean), Matxiategi (Mizpildil okindegia), Zuradero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegarieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.
Labegarieta / Olabarrenetik irteerak
07:20, 07:35, 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.
GERALEKUAK: Labegarieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espolonia (Mintegi), San Pedro, Arrurriaga (Konde), Zubieta, Mugeriza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.

ORAINDELA 10 URTE BERRIGARAN

EXPOn lanean ibilitako Marisa Puertasekin berriketan

1992ko irailean, abuztuko oporretatik bueltan, Sevillako EXPOn lanean zebilen Marisa Puertas bergarra elkarrizketatu genuen. Marisak azafata lanetan jardun zuen sei hilabetez. Besteak beste, zera esan zigun: "EXPOri esker, Sevillak itxuraldaketa osoa izan du".



BERTAKO BERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Sukurutza"



Izua, beldurra.
-Ilgo dabela amenazau dabe.
Ori da sukurutza sartu dotsena.

ASTEKO FILMAK


'NUEVE DIAS'

ZUZENDARIA: JOEL SCHUMACHER. AKTO-REAK: ANTHONY HOPKINS, CHRIS ROCK.

HARIA. CIAko barne arazoak agertzen dira akziozko komedia honetan. Agente beterano batek (Hopkins) apustugile bati anaiak bikia aurkitzen lagundu beharko dio. Kontua da anaiak biki horrek lan bat zor diola CIAri.

TOKIA ETA ORDUA. Novedadesen. Egubakoitzean 22:30an; zapatuan, 19:30ean, 22:30ean; domekan, 11:30ean eta 22:15ean eta astelehenean 19:30ean.

PUNTUAZIOA: ●●●●●



'LILO & STICH'

ZUZENDARIAK: CHRIS SANDERS ETA DEAN DEBLOIS.

HARIA. Lilo Hawaiiiko neska txiki bat da. Beste galaxia bateko proba genetiko batetik ateratako Stich txakurra adopzioan hartuko du. Txakurtxoa zoriontsu izango da Lilo-rekin eta, azkenean, etxe bat aurkituko du. Disney etxeak bi dimentsiotan eginiko marrazki bizidunak, umore beltzez zipriztinduak.

TOKIA ETA ORDUA. Novedadesen. Zapatuan eta domekan, 17:00etan.

PUNTUAZIOA: ●●●●●

BERGARA Margoak



Kalitatea eta zerbitzua.

Amillaga 1, 1 pabilioia, goiko solairua. 162 posta kutxa, 20570 BERGARA
Tel.: 943 76 97 31 Faxa: 943 76 97 32. bergara.margoak@terra.es

IGERILEKUAK/ Abonatuei bi aukera eskainiko dizkiete: Debagoieneko herrietako igerilekuak doan erabiltzea edo ordaindutakoaren zati bat itzultzea

Udako denboraldia amaitu ondoren ez dituzte igerileku estaliak irekiko


MONIKA BELASTEGI

Udako denboraldiaren ondoren igerileku estaliak irekiko ote zituzten herritar askoren ahotan ibili den galdera da. Udaleko Kirol Zerbitzuko iturriek eman dute erantzuna dagoeneko: udako denboraldiaren ondoren ez dituzte barruko igerilekuak irekiko.

Barruko igerilekuak irekiko ez dituztela-eta, Kirol Zerbitzuko iturrien esanetan, eguraldi onak irauten duen bitartean egongo dira zabalik kanpoko igerilekuak; hau da, udako denboraldia luzatu egingo dute, nahiz eta berez irailaren 15ean amaitu beharko litzatekeen.

Kirolgune berria eraikitzeke lanak gainean ditugu, udazkenean hasiko ei dira, eta horixe da igerileku estaliak ez zabalteko arrazoia. Udaleko iturriek ez dute aurreratu lanak noiz hasiko dituzten, baina datak eta proiektuaren gameko argibideak laster prentsaurrekoan aditzera emango dituztela azaldu du Udaleko Kirol arduradunak.

Igerileku estaliak ez zabalteak txartela duten 3.431 lagunengan eragiten du zuzenean, txartelaren balioa abendura artekoa delako. Horri bi irtenbide emango dizkio Udalak, eta Udal agintariak erabaki gabeko beste hirugarren aukera bat ere aztertze ari dira. Erabakitako bi horiek honakoak dira: batetik, Debagoieneko Kirol Txartela erabiltzeko aukera ematea, hau da, Debagoieneko gainerako igerilekuetara joateko aukera ematen duena; eta, bestetik, igerilekuak ixten dituztenetik urte amaiera arteko kuotaren zati proportzionala bueltatzea abonatuiei.



Aurten erabili izan ditugu azkenekoz igerilekuak; estaliak zein irekiak.

ARTXIBOA

Kanpoko igerilekuak zabalik egongo dira denbora onak irauten duen bitartean

GIMNASIO ZERBITZUA

Igerilekuetako gimnasio zerbitzuari dagokionez (kardio eta muskulazio makinak), Labegaraietara eramango du Udalak,

Igerilekuetako gimnasioa kiroldegi ostean Udalak duen pabilioian egokituko dute

Labegaraietako kiroldegiaren ostean duen pabilioi batera, hain justu ere. Horretarako, pabilioia egokitu egin beharko du, eta uztailako azkeneko astean egindako

Oso denboraldi txarra izan da igerilekuetan; 5.000 sarrera baino gutxiago izan dira

osoko bilkuran lan horiek egiteko 20.982 euroko aurrekontua onartu zuten. Lanak sei enpresaren artean banatuko dira eta dagoeneko hasi dira pabilioia

hustu eta garbitze lanekin. Datorren hilerako lanak bukatuta egotea nahiko luke Udalak.

Gimnasioaz gain, sauna ere tokiz aldatzeko aukera ikertzen ari dira. Aldatzekotan Labegaraietako kiroldegira eramango dute. Oraingoan, aldatetaren bidegarritasuna aztertzen ari dira.

DENBORALDI TXARRA IGERILEKUETAN

Udaleko iturrien esanetan, igerilekuetako denboraldia oso txarra izan da, azken 10 urteotako txarrena. Abuztuan 5.000 sarrera baino gutxiago izan dira.

Irailean irekiko dute ekialdeko saihsbidea

MONIKA BELASTEGI

Ekialdeko saihsbideko lanak amaitzeaz daude. Mariezkurrena enpresa eraikitzaileko iturrien esanetan, irailaren hirugarren edo laugarren astean irekiko dute, seguruenik. Datorren astean Foru Aldundiko Errepide Saileko arduradunekin dute batzarra, eta hor erabakiko dute saihsbidea irekitzeko egun zehatza.

Enpresako iturriek azaldu dutenez, lanak ia amaituta daude. Aste honetan Telleriako birluneak asfaltatzeko lanekin amaitzekoak dira, baita lurreko

ikurrak marrazten. Zutikako seinaleak jarrita daude dagoeneko.

Datorren astean azken asfalto kapa botako dute saihsbidearen enborrean, eta horren ondoren zoruko ikurrak marraztu eta seinaleak jarri beharko dituzte. Lan guztiakin amaitzeko azken eginbeharra Telleriako zubi berriaren azpian bidegorria egitea da, industrialdetik doan bidegorriari jarraipena emateko.

Enpresaren esanetan, epeak nahiko ondo errespetatu dituzte abuztuan, hainbat egun eguraldiagatik geldirik egon direla kontuan hartuta.



Saihsbidearen helburuetako bat San Antoniotik Torrekua pareko zubira doan zirkulazioa arintzea da.

MONIKA BELASTEGI



MONIKA BELASTEGI

Egoitza aurreko elkarretaratzeetan zein aste osoan barrena egindako mobilizazioetan jende ugari hartu du parte.

BATASUNAREN LEGEZ KANPORATZEA/ Ertzaintzaren jarrera probokatzailea salatu dute

Sozialista Abertzaleek laga egin dute egoitza aurrea

MONIKA BELASTEGI

Irizar kalean duten egoitzaren aurrean biltzeari utziko diotela adierazi zuten Abertzale Sozialistek astelehenean egoitza aurrean egindako prentsaurrekoan. Beste gauza batzuen artean, elkarretaratzeak iraun duten astebetean Ertzaintzak izan duen jarrera salatu zuten.

Abuztuaren 26an hasi eta egunero, hogeita lau orduz, hainbat lagun izan da Bergarako Abertzale Sozialistek Irizar kalean duten egoitzaren aurrean elkarretaratuta, egoitza ixteko arriskuan dagoela-eta. Astelehenean egindako prentsaurrekoan zera

adierazi zuten: "Astebete pasatu eta Ertzaintzak egoitza itxi ez duela ikusita, erabaki dugu gure lanei ekin eta astebeteko dinamika horrekin bukatzea".

Horrez gain, astean barrena egindako beste mobilizazio batzuen gainbegiratu ere egin zuten, hala nola: abuztuaren 30ean egindako giza katea, abuztuaren 31n egindako bizikleta marxa eta egunero egindako batzar informatiboak.

ERTZAINZAREN JARRERA PROBOKATZAILEA

Egoitza aurreko egonaldian Ertzaintzak izan duen jarrera ere salatu zuten prentsaurrekoan: "Gure desgastearen bila ibili da,

baita tentsioa sortu nahian ere. Horrez gain, probokazioak etengabeak izan dira; batetik, egoitza aurrean batutakoak identifikatu dituzte eta salatzearekin ere mehatxatu dituzte. Bestetik, kaleko kartel eta pankartak kendu eta apurtu egin dituzte, eta egoitza aurreko eta Arrano taberna inguruko jendea grabatu".

Bestalde, adierazi zuten argi dutela egoitza aurreko elkarretaratzeak laga arren Ertzaintzak edozein egunetan itxi eta zigilatuko duela egoitza. Hala ere, lanean jarraituko dutela adierazi zuten, badakitelako "herri honean bakea eta gatazkaren amaiera konponbide demokratikoak ekarriko dituela".

Eusko Labeldun oilaskoak, San Martin ferriako berritasun

MONIKA BELASTEGI

San Martin jaietako barazki, fruta, gazta eta lore moztuen azokarekin bat eginez, Baserriko Oilaskoaren VI. jai ospatu dute Munibe plazan irailaren 14an, Udalak eta Luma Gorri elkarteak antolatuta.

San Martinetako barazki, fruta, gazta eta lore moztuen azoka berritasun batekin dator aurrean: azokarekin bat eginez, Baserriko Oilaskoaren VI. jai ere izango da herrian, Munibe plazan, hain justu ere.

Ekitaldia 10:00etan hasi eta 15:00ak arte luzatuko da. Burrentzian eta parrillan erretako Luma Gorri baserriko oilaskoa dastatzeko aukera izango da, baita oilasko osoak erroteko ere. Horrez guztiaz gain, Eusko Labela duen oilaskoaren hazkuntza

prozesu osoa ikusteko aukera ere izango da, horretarako prestatuko duten erakusketan. Eta horri guztiorri, bertsolari, txistulari eta trikitilariak jai giroa jarriko diote.

KOLDO LASA SUKALDARIA BASERRIKO OILASKOEN LAGUN

Jaiaren barruan, Koldo Lasa sukaldaria Eusko Labela duen Baserriko Oilaskoaren Lagun izendatuko du Luma Gorri, 12:00etan.

Horrez guztiaz gain, han izango dira Debagoienean Luma Gorri baserriko oilasko ekoizten eta saltzen dutenak ere. Hiru dira, eta tartean bada berengar bat: Migel Arregi, hain justu ere.

Bestalde, gaur egun, Luma Gorri elkarteak ekoizten duen baserriko oilasko da Eusko Labelaren "Kalitatea" zigilua daukan bakarra.



Eusko Labela duen baserriko oilaskoaren hazkuntza prozesua erakutsiko dute.



Babestutako etxeen 2. blokea, martxan

Eguenean hasi zituzten San Antonion babestutako etxebizitzeko lanak. Lehenengo blokean bezala, 18 etxebizitza egingo dituzte eta, gutxi gora-behera urte eta erdiko epean amaituta egongo dira.

Eguenean eraikitzen hasitako blokea lehenengoarekiko paralelo egingo dute, errearen beste aldean, eta itxuraz berdina izango da. Enpresa eraikitzailea Legber izango da eta etxeok Eusko Jaurlaritzak eta Udalak sustatutakoak dira.

LABUR

Asteburuetarako begiraleak behar ditu Jardunek

Jardun euskara elkarteak begiraleak behar ditu 2002-03 ikasturterako. Bost begirale, hain justu ere, asteburuko aisialdian zortzi eta hamabi urte bitarteko neska-mutiko-ekintzak egiteko (jokoak, irteerak...).

Interesatuak Jardun elkartera bidali beharko dute curriculum, Errotalde jaurregira. Izena emateko epea irailaren 13an amaituko da. Informazio gehiago elkartearen egoitzan edo 943 76 08 19 eta 943 76 36 61 telefonoetan.

UDALTZAINGOAK/ Irailean txakur arriskutsu gisa izendatuta daudenak kontrolatzeari ekin diote eta urtarrilean garabi zerbitzua jarriko dute martxan

Beste hiru agente eta bi zerbitzu gehiago, Udaltzaingoaren berritasun nagusiak

MONIKA BELASTEGI

Beste hiru udaltzain ditugu herrian. Hiru horiekin, hamazazpi lagunek osatzen dute gaur egun herriko Udaltzaingoa. Edozelan ere, agenteez gainera, beste bi berritasun ere baditu: bata, txakur arriskutsuen zaintza; bestea, garabi zerbitzua.

Aitor Imaz, Unai Egaña eta Xabier Ansa. Horiek dira Udaltzaingoa uztaila ezkereratu dituen hiru langile berriak. Hiruretako bat gainera, Unai, hain zuzen, Andoni Egaña bertsolariaren anaia da.

Lanpostua eskuratzeko hainbat proba egin behar izan dituzte hiru gazteek: euskara proba, proba fisikoa, teorikoa, praktikoa, psikoteknikoa, elkarrizketa eta osasun proba. Aukeratze proba horiek abenduan hasi eta martxora arte luzatu ziren, eta, horren ondoren, hiru hilabeteko formazio ikastaroa ere egin behar izan zuten Arkauten.

Ondoren, uztailaren erdialdean ekin zioten lanpostu berriari. Hirurak kanpotarrak izanik -bi zarautzarrak eta bestea lasartearra-, lehenengo lana herria ikustea izan da: kaleak, bidegurutzeak... Udaltzain lanpostuaren ezaugarri eta eginbeharrei dagokienez, berriz, eskarmentua dute hirurek ere, bi urtez jardun dute-eta udaltzain Zarautzen.

LANPOSTUAK BETETZEKO ZAILTASUNAK
Hiru udaltzain horiekin, Bergarako Udaltzaingoa 17 agente ditu gaur egun, nahiz eta irailean barrena 16 kiderekin geratuko den, udaltzainetako batek hiru urteko eszedentzia hartuko duelako. Hala ere, datorren urtean berriro beteko dute hutsune hori.

Hutsuneak betetzearen ildotik, Alfontso Alonso udaltzainburuak azaldu duenez, ez ei da horren erraza udaltzain lanpostuak betetzea. Haren esanetan, "jende gutxi ematen du izena udaltzain lanposturako eta joera hori ez da soilik Bergaran gertatzen den gauza bat; inguruko herrietan gertatzen den fenomeno ere bada". Alonsok gehitu duenez, arrazoi bat baino gehiago dago horretarako: "Badira batzuk, kaleko lana izanik, kalean ibiltzeari erreparoa diotenak; uniforme eramatea ez gustatzea ere bada beste arrazoi bat, edo herriko jendearekin tratatu beharrrak grazia handirik ez egitea, beste batzuen artean".

Bergara moduko biztanle kopurua duen herri batendako hamazazpi udaltzain egotea zenbaki polita dela aipatu du Alonsok: "Mila biztanleko 1,1 agente dugu hemen eta hori nahiko ondo dago. Kontuan hartu behar da, gainera, guk bi txandatan egiten



Bergarako Udaltzaingoa hamazazpi agente ditu orain, beste hiru gazte sartu dira-eta.

Hiru udaltzain berriak



AITOR IMAZ

- 25 urte
- Zarautzarra
- LH II
- Zarautzen Udaltzain aritua bi urtez
- Kirola eta animaliak ditu gustuko



UNAI EGAÑA

- 30 urte
- Zarautzarra
- Gizarte graduatua
- Zarautzen Udaltzain aritua bi urtez
- Kirola du gustuko



XABIER ANSA

- 27 urte
- Lasarte-Oria
- Gizarte laguntzailea
- Zarautzen Udaltzain aritua bi urtez
- Futbola eta zinema ditu gustuko

Txakur arriskutsuak

Irailean, txakur arriskutsuen gainean indarrean dagoen legedia betearaztea izango da Udaltzaingoa izango duen zerbitzu berrietako bat. Legearen arabera, badira zortzi txakur arraza -Pit Bull Terrier, Tottweiler, Tosa Inu eta Dogo argentinarra, besteak beste- potentzialki arriskutsuak izan daitezkeenak. Hori horrela, jabeek txakur horiek kalera ateratzeko baimen berezia behar dute.

Bergarako Udaltzaingoa jabeen eta txakurren errolda eginga dauka eta, Alfontso Alonsoren esanetan, horrelako 15 txakur daude herrian, nahiz eta errolda eguneratu beharra dagoen.

Jabeek ondorengoa hartu beharko dute kontuan txakurra kalera ateratzeko: goian aipatutako baimena izatea, txakurrari muturrekoa jartzea eta uhala bost metro baino luzeago ez izatea. Hori bete ezean, isunak izango dira.

Garabi zerbitzua

Urte amaiera aldera hasi behar ziren arren, datorren urte hasierara atzeratu dute garabi zerbitzua.

Udalak lehiaketa bidez eskuratu nahi du garabia, eta, baldintzak uztailaren kalera zituena arren, inor ez da lehiaketara aurkeztu. Ondorioz, baldintzak berriro prestatu eta kaleratu behar dituzte, eta zerbitzuaren hasiera atzeratu egingo da.

Honako autoak eramango ditu garabiak: arriskua sortzen dutenak, ibilgailuen zein oinezkoen zirkulazioa eragozten dutenak, zerbitzu publikoren bat eragozten dutenak edo ondare publikoa kalteztzen dutenak. Autook Urtate kalean egokitutako biltegi batera eramango dituzte. Eta egindako arau-hausteari dagokion isunaz gain, garabiak autoa bide publikotik kendu eta gordetzea 23,35 euro ordaindu beharko dira. Garabi zerbitzua ere udaltzainen ardura izango da.

dugula lan, 06:00etatik 14:00etara eta 14:00etatik 22:00etara; txanda bakoitzean sei lagun egoten gara. Horrekin, zerbitzua ondo hornitua dago. Ikerketek diote mila biztanleko 1,5 agente dela egokiena hiriburuetan, baina kontuan hartu behar da herriak eta hiriak oso ezberdinak direla".

BATEZ BESTEKO ADIN ALTUA

Herriko hamazazpi udaltzainetatik, bi emakumezkoak dira eta gainerakoak gizonezkoak. Bestalde, adinaren batez bestekoari dagokionez, nahiko altua dela aipatu du Alonso udaltzainburuak. Haren esanetan, "uztailaren hiru langile berriak sartu aurretik, adinaren arabera bi multzotan banatzen ziren udaltzainak: batetik, 36 eta 45 urte arteko bederatzi udaltzain daude; eta, bestetik, 56 eta 65 urteko zazpi. Horrek 45,9 urteko batez bestekoa ematen du.


Udaltzainek egiten duten lanari dagokionez, zereginetako batzuk ezagunagoak ditugu eta beste batzuk ez hainbeste. Udaltzainburuaren esanetan, nagusia zirkulazioa zaintzea da: bidegurutzeak zaintzea, zirkulazioa antolatzea eta herri barruko istripuen informea egitea, besteak beste, nahiz eta Alonsoren esanetan herritar askorendako gure zeregin nagusia isunak jartzea den. Zirkulazioaz gain, ordenantzak betetzen diren zaintzea ere euren lana da: obra baimenak, lur okupazioak, utzitako txakurrak jaso eta txakurtegia eramatea...

Gainera, edozein denuntzia mota jaso, egiaztatzea eta epaitegira eramatea ere udaltzainen zeregina da, baita auzotarren arteko arazoak konpontzea ere.

KOFRAIXEKIN

AGUR ABUZTUKO
OPORREI

Joan den asteburuan ospatu zituzten Osintxun Kofraixak. Oporrei amaiera eta ikasturte berriari hasiera emateko modu polita, egia esan. Egubakoitzean hasi zituzten jaiak, eta hainbat ekitaldi izan zituzten domekara arte. Egubakoitzean, dagoeneko ohitura bihurtu den bizikleta martxa egin zuten hainbat lagunek, mozorrotuta. Osintxutik Plazentziarako ibilaldia egin zuten. Gauean herri afaria egin zuten, eta mariachiekin gozatzeko aukera ere izan zuten osintxuarrak. Domekan, argazkian ikus daitekeenez, bertso saioa izan genuen Sebastian Lizaso, Maialen Lujanbio eta Andoni Egaña bertsolariekin. Arno erromeria taldearen emanaldiarekin amaitu zituzten jaiak, nahiko dantza egin eta gero.




MARRA URDINAK PLAZAN

San Martin plazan, Seminarioko aurreko aldeko aparkalekuan, marra urdinak margotu berri dituzte. Ez da kontu berria toki horretan, gehienez, hamabost minutuz laga daitekeela aparkatuta automobila. Hori adierazten duten zirkulazio seinaleak lehendik badauden arren, orain, abuztuan, urdinez margotu dute aparkalekua. Horrela, denbora muga hori garbiago adierazteaz gain, aparkalekua ere hobeto seinaleztatuta geratu da.

- L** Ikastaro teoriko trinkoak euskaraz eta gaztelaniaz
- L** Ziklomotorreko lizentzia astebetean. AZTERKETARIK GABE!
- L** Izena ematean, %10eko deskontua Gazte Txartelarekin

Gaindi ezazu autoaren azterketa teorikoa 16 urterekin!

Telefonoa: 943 76 16 63. BERGARA



ARRAÑAGA

A U T O E S K O L A

BERGARARRAK MUNDUAN

MAIER AMOR

27 URTE / BOTIKARIA / NEWCASTLE APO NTINE

“Urte batzuk hemen biziko naiz, baina Euskal Herrira itzuli nahi dut”

AINZANE IRIZAR

Zazpi hilabete besterik ez darama Maierrek Newcastlen bizi izaten, baina segituan moldatu ei da hango bizimodura eta oso gustura ei dago.

“Batez ere, lanagatik etorri nintzen; izan ere, langabezian nengoela iragarki bat ikusi nuen egunkarian, Ingalaterran botikariak behar zituztela-eta. Hala, animatu eta hara abiatu nintzen otsailan”, azaldu digu Maierrek.

Esan bezala erraz moldatu den arren ingelesaren ohiturara, hango ordutegietara egokitzea kostatu egin zitzaion: “Adibidez, bost eta erdietan denda guztiak ixten dituzte eta kaleak huts-hutsik geratzen dira”.

Hizkuntzarekin ere ez ei du arazo handirik izan: “Hasieran pixka bat galduta sentitzen nintzen, baina denborarekin gero eta hobeto moldatu naiz”, diosku Maierrek. Gainera, ingelesekin bizi da etxean, eta

euretako bat ingeleseko irakaslea da; hortaz, laguntza ederra du etxean bertan.

Ingelesak oso jatorrak ei dira, Maierrek azaldu digunez: “Nik ez dut batere arazorik izan, alderantziz, beti laguntzeko prest dagoen jendea da. Esaten dutenez, hego-

“Botikariak behar zituztela, eta horrelaxe, lanera etorri nintzen Newcastle-ra”

alderago, Londresen, esaterako, jendea ez ei da hain atsegina eta jatorra; nik neuk ez dakit hori horrela den”.

Batez ere, familiaren eta lagunaren falta sumatzen ei du, baina baita hemengo janariarena ere: “Gehienbat, urdaiazpikoa, txorizoa eta horrelakoa sumatzen ditut faltan. Gainerakoan, dendetan denetik topatzen dut, eta etxean moduan jaten saiatzen naiz”.

Aurrera begira, han jarraitzeko asmoa daukala esan digu Maierrek; ea betiko han geratuko litzatekeen galdetu eta “ezta pentsatu ere!” erantzun digu berehala: “Urte batzuk hemen bizi izateko prest nago, baina hemendik denbora batera Euskal Herrira itzuli nahi dut”.



MINGAINARITIRAKA



Maria Jesus Prieto

BOLU SUKALDEAK DENDAKUA

Maria Jesusek 36 urte dauzka, ezkondua dago eta ume txiki bat dauka. Sei urte daroia Bolu Sukaldeak dendan lanian, anaiakin batera. Gustora dabil, gustoko lana ei dauka.

Oporretan, zer moduz?

Ondo; Valladoliden egon gara oporretan eta nahiko eguraldi ona egin dosku.

Eta oporretatik bueltia?

Valladoliden egin doskun eguraldi onakin, hona bueltatu eta hain eguraldi txarra topatua izan da txarrena. Gaiñera, katarrua harrapau dot. Lanerako bueltia ez da arazua izan neretako, asko gustatzen jat-eta nere lana.

Zer da zure lanian gehixen gustatzen jatzuna?

Enpresa ikasketak egin nittuanez, kontabilitadiaz, fakturak, inpuestuak eta horrelakoa gustatzen jat gehixen. Bezeruekin hartu-emonen be gustatzen jat.

Eta gutxien?

Diseñuak egittia; lan hori, batez be, anaiak egitten dau.

Zelako altzarixak gustatzen jatzu?

Moderno samarrak; altzari zurixekin koloriak tartekatua gustatzen jat, eta egurrezko altzarixak be bai.

Denbora librian zer egittia gustatzen jatzu?

Mendira jutia, baiña oin, ume txikixa daukagunez, ez gara askotan juten.

Bizi izeteko toki bat?

Bergaran oso gustora bizi naiz.

Kolore bat?

Gorrixa, kolore bizixa da-eta.

Usain bat?

Limoiarena.

Loterixia tokau ezkeru, zer egingo ziñuke?

Lana laga, eta gustatzen jaten gauzak egin. Biharra daukenei be lagunduko notseke.

AINZANE IRIZAR

NIRE BIDAIA HURA / Susana Pérez

INDONESIA / 2002ko abuztuan

Iaz, udan, Vietnamen egon ginen lagun talde bat, eta han ezagututako bikote batek oso ondo berba egin zigun Indonesiaren gainean. Horrela, hara joatea erabaki genuen.

Lehenengo, senarra eta biok joan ginen. Jakartara iritsi ginen, eta handik Padangera abiatu ginen, Sumatran. Indonesia mila uhartek baino gehiagok osatzen dute, eta horietako bat da Sumatra. Padangen trekking bat kontratatu genuen; Sumatrako beste uharte baten egin genuen trekking hura, Siberuten, hain zuzen ere. Lau egunekoa izan zen trekking-a, eta benetan interesgarria izan zen. Mentawai etniarekin egon ginen han, eta euren bizimodua bertatik bertara ezagutzeko aukera izan genuen. Behin trekking-a bukatuta, Sumatrako uhartera itzuli ginen, eta Bukkingtingi herri-ira joan ginen; minangkaban kulturaren aztarnak ikusi ahal izan genituen han. Etxeak, batez ere, oso bereziak ziren. Guztira, hamar egun egin genituen Sumatran, baina denbora luzeagoa egiteko gogoarekin geratu ginen.

Sumatratik Javara joan ginen eta gainerako hiru lagunekin elkartu ginen han. Java uharteak ikusi genuen bostok. Bandung zonara joan ginen; han te eta arroz landaketak ikusi genituen, baita sumendi bat ere; benetan esperientzia berezia izan zen.

Javatik Lombok uhartera joan ginen, hegazkinez; paradisia da uharte hura, zoragarria da. Han geundela Gili uharteetara ere joan ginen; ikustea merezi duen uharteak, zalantza barik. Dena dela, izugarria da han dagoen pobrezia ikustea; paradisia ematen du, umeak gosez daudela ikusi arte. Azkenik, Balin ere egon ginen, gainerako uharteak baino turistikoa, baina oso polita hura ere.



“Sumatran denbora luzeagoa egiteko gogoz geratu ginen”

“Lombok eta Gili uharteak paradisia dira, benetan zoragarriak”

AINZANE IRIZAR



Bukkingtingi inguruko herrixka bat.

Herrialde berriak bisitatu dituzu udan?

Zure bidaiak kontatzeko prest zaude? Anima zaitetz, zure abenturak gustura irakurriko ditugu eta!

Deitu 943 76 03 97 telefonora.

Berrigara



FUTBOLA

Reala eta Girondins taldeen arteko partidua gaur Agorrosinen, 18:00etan

Bergara KEren 50. urteurrena ospatzeko partiduan Denoueix-en Reala eta Frantziako liga eskuratzeko faboritoetako bat izango dira aurrez aurre

EDU MENDIBIL

Bergara KEren 50. urteurreneko ospakizunen barruan, Reala eta Bordeleko Girondins aurrez aurre izango dira gaur, egubakoitza, Agorrosinen, 18:00etan. Denoueix Realeko entrenatzaile berriak osatutako taldea bertutik ikusteko aukera izango dute futbolzaleek.

Realak hasiera ezin hobea eman dio aurtengo ligari, domekan Athletici 4-2 irabazi ostean. Bordeleko Girondinsek, berriz, bost partidu jokatu ditu Frantziako ligan eta bi partidu irabazi, bi berdindu eta bakarria galdu du (Strasbourg taldearen aurka, Bordele, 1-2). Azken jardunaldian, joan den zapatuan, huts eta huts egin zuten etxetik kanpo, Guingamp taldearen aurka, hain zuzen ere. Aurreko denboraldian 6. postuan sailkatu zen Girondins ligan eta, ondorioz, aurten UEFA jokatzeko txartela lortu zuen. Era berean, Pauleta portugaldarra ligako gogegile nagusia izan zen. Pauletarekin batera, Dugarry, Smertin, Bonnissel eta Savio dira taldeko jokalaririk ezagunenak. Elie Baup dugu Girondinseko entrenatzailea.

Realari dagokionez, zaleak itxaropentsu dira hasi berri den denboraldiari begira. Denoueix entrenatzaile berriaren eskutik, domekan lehenbiziko garaipena lortu zuten, merezimendu osoz, Athleticen aurka. Denoueix entrenatzailearekin batera, Karpin, Boris eta Schürer ditugu nobedade nagusiak Realean. Domekako partiduan nabarmendu zen Nihat turkiarra ez da gaur Agorrosingo berdegunean izango, selekzioarekin jokatzeko deitu dutelako. Hortaz, orain arte jokatzetik izan ez duten hainbat jokalaririk probatzeko aukera izango du Realeko entrenatzaileak. Esaterako, Oviedotik fitxatutako Boris asturiarra hasierako hamaikakoan izango da, ziurrenik. Agustín Aranzabal Realeko kapitain berria ere Bergaran ikusteko aukera izango dugu.

Gaurko partidurako sarrerak 6 eurotan jarriko dituzte salgai eta 12 urtetik beherakoendako sarrera doakoa izango da. Antolatzaileek Agorrosinen sarrera bikaina izatea espero dute, bi taldeen maila kontuan izanda.



Argazkian, domekan Athleticen aurka Anoetan zelairatu zen Realaren hamaikakoa. Reala 4-2 nagusitu zitzaion Athletici ligako lehen partiduan.

LIBURUA, HILAREN 22AN KALEAN

50. urteurreneko ospakizunekin jarraituz, Bergara KEren historia batzen duen liburua aurkeztuko dute irailaren 22an Udale-

txean. Juan Luis Bikuña kazetariak idatzitako liburua 18 eurotan jarriko dute salgai eta liburua CD-ROM formatuan eskuratzeko aukera egongo da, 6 euroren

truke. 200 orrialdetan barrena sailen gainbegiratuak jasotzen da eta 300 argazki inguru azaltzen dira. Liburuaren aurkezpen egunean elkartetik igaro diren jokalari,

entrenatzaile, zuzendari eta laguntzaileen bazkaria izango da Lasa jatetxean. Izena ematea Kutxan edo Euskadiko Kutxan egin daiteke, 45 euro ordainduta.

Jokalari beterranoei omenaldia gaurko partidu atarian

Gaurko partiduen atarian, Bergara KEko zuzendaritzak Or-Konpon taldean ibilitako bost jokalaririk beterrano omenduko ditu. Or-Konpon futbol taldea Bergara KEren aurretikoa izan zen eta hantxe ibili ziren Roman González (83 urte gaur egun), Antonio González (85 urte), Bixente Unzuurruntzaga (86 urte), Hilario Unzuurruntzaga (90 urte) eta Fermin Agirre (91 urte).

Or-Konponen jokatu ondoren, Bergara sortu aurretik osatutako Unión Club taldean ibili ziren bostak: Roman atezaina zen, Antonio anaia erdilaria, Fermin Agirre *Fermin Txiki*-k zelai erdian, ezkerretatik, jokatzeko zuten, eta Bixente eta Hilario anaia erdi-erdian aritzen ziren. Hilario Or-Konponeko entrenatzaile izan genuen. Zalantzarik gabe, beste garai batzuk ziren. Orduko materialak ez ziren gaurkoen modukoak eta baloiak, esate baterako, askoz ere pisutsuagoak ziren. Teknikak baino gehiago, indarrak zeukan garrantzi handiagoa orduan, futbol zelaietan lokatza izaten zelako nagusi.

Gaur, esan bezala, berriro ere zelairatuko da omenetako boskotea Agorrosinera eta, zaleen txaloak jasotzean, ziurrenik gaztetan bizi izandako oroimenak etorriko zaizkie gogora.



Hilario Unzuurruntzaga, Fermin Agirre, Bixente Unzuurruntzaga eta Antonio González.

ZAITEGI

Babeslea

KIROLA ZEURE ESKURA

www.forumsport.com

Garibai Etorbidea, 2-6. Arrasate

FUTBOLA

Bergarak Pasajesen aurka hasiko du liga

EDU MENDIBIL

Bergara KEko preferenteko futbol taldeak Pasajes taldea hartuko du domekan Agorrosin, 16:30ean, ligako lehenbiziko partiduan. Juanina Garai entrenatzailearen helburua jazko denboraldian lortutako 5. postua hobetzea da.

Mahoneroak prest daude denboraldiari ekiteko. Talde gaztea dauka Bergarak aurten. Gazte taldeak Aritz Agirre, Ander Elkoroberezibar, Gorka Martínez eta Julen Aranburu (gazte mailako golegile nagusia aurreko denboraldian) preferente taldera igo dira eta, horrez gain, Julen Berraondo bergararra eta Josu Zubikarai antzuolarra (iaz Eibar Urkon) eta Aitor Berraondo antzuolarra (UDA) fitxatu dituzte. Taldea utzi dutenei dagokienez, Ander Berraondok eta Mikel Osorok futbola utzi dute eta Jose txo Lizarralde 3. mailako Beasain taldearekin fitxatu du. Osoro Juanina Garai entrenatzailearen laguntzailea izango da, Lauri Askargortarekin batera.



Zutik, Julen Aranburu, Zubikarai, Garai entrenatzailea eta Julen Berraondo. Behean, Agirre, Aitor Berraondo eta Elkoroberezibar.

GARAI, ITXAROPENTSU

Juanina Garai entrenatzailea itxaropentsu dago aurtengo denboraldiari begira: "Izandako

bajak igarriko ditugu, baina gure asmoa lehen bosten barruan sailkatzea izango da. Ea gazteek, beterranoen laguntzarekin, mailari

neurria hartzen dioten".

Talde abuztuaren 16an hasi zen entrenatzen eta aurrendenboraldian partidu bakarra jokatu

du, abuztuaren 25ean, Bergaran, Eibar B taldearen aurka (1-3). Domekatik aurrera gogor jardun beharko dute mahoneroek.

Preferenteko plantila


ADINA JATORRIA

ATEZAINAK		
Markel Egaña	25	Bergara
Ander Ruiz	20	Arrasate
ATZELARIAK		
Asier Rodríguez	24	Bergara
Markel Lazpiur	20	Bergara
Oier Loiola	21	Bergara
Andoni Arrieta	20	Bergara
Julen Berraondo	18	Eibar Urko
Aitor Berraondo	22	UDA
Aritz Agirre	19	Bergara
Ander Elkoroberezibar	18	Bergara
ERDILARIAK		
Oskar Maiztegi	27	Bergara
Gorka San Vicente	23	Bergara
Jokin Mendiaratz	25	Bergara
Jon Alzola	19	Bergara
Iban Rajado	20	Ilintxa
Josu Zubikarai	18	Eibar Urko
Manolo Ortiz	20	Bergara
AURRELARIAK		
Xabier Arregi	24	Antzuola
Unai Rollán	21	Bergara
Julen Aranburu	19	Bergara

Bergara KEko futbol zuzendaritza, jokalarien gurasoen esku

E.M.

Astelehenean, BKEko futbol sailleko zuzendaritza aukeratzeko batzarra egin zuten Ipintzan. Udan erabakitakoaren arabera, azpiko kategorietan ari diren jokalarien gurasoek hartuko dute zuzendaritza. Zozketa bidez, 8 lagun aukeratu dituzte. Hainbat boluntarioren laguntza ere izango dute. Herenegun, hilaren 4an, berriro batzekoak ziren karguak izendatzeko, presidentea eta diruzaina nortzuk izango diren oraindik erabakitzeko dago-eta. Elkarrearen 50. urteurrenean, futbol saila ez dago egoera onenean. Futbolak 108.182 euro (18 milioi pezeta) inguruko aurrekontua du 2002-03 denboraldirako.



Astelehenean zuzendaritza aukeratzeko Ipintzan egindako batzarreko irudia.

KIROL ESKAINTZA

Sasoian egoteko gimnasia eta aerobika Kirol Zerbitzuaren eskutik

Kirol Zerbitzuak antolatuta, datorren astetik aurrera aerobik eta sasoian egoteko gimnasia eskainiko dituzte. Sasoian egoteko gimnasiako eskolak astean bi egunez izango dira eta aerobika bi edo hiru egunean egin ahal izango dute partaideek. Era berean, eskolak goizez edo arratsalde hartzeko aukera egongo da. Jardueratan parte hartzeko interesa dutenek Kirol Zerbitzura jo dezakete izena emateko. Argibideak 943 77 91 67 telefono zenbakian.

ARETO FUTBOLA

Labegarrietako areto futbol txapelketarako izenematea irailaren 16ra arte zabalik

Lagunak taldeak antolatuta, irailaren 28an, areto futbol txapelketaren XVII. aldia abian jarriko da kiroldegian. Parte hartu nahi duten taldeek irailaren 16ra arte izango dute zabalik izena emateko epea. Talde bakoitzak 162 euro ordaindu beharko ditu Euskadiko Kutxan irekitako kontuan. Irailaren 17an, taldeetako ordezkariak batzarra egingo dute kultura etxean, 18:30ean. Talde bakoitzak taldearen izena eta jokalaria bakoitzaren izen-abizenak eta NA zenbakia zehaztu beharko ditu.

ETXEBERRIA

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16 BERGARA
Tf. 943 76 23 94 / 943 76 12 65

BERGARAN
BULEGO BERRIA



BERGARA
Ibargarai 3.
943 76 97 97

LEGAZPI
Santikutz 8.
943 73 05 25

10 URTEKO
ESPERIENTZIA!

GOIERRI

AUTOGIDARIEN ESKOLA



Edozein eratako gida baimenak lortu ditzakezu

Fraiskozuri plaza 5 Tf. 943 76 41 50 BERGARA



ARTXIBOA

Lanak aire librean izango dira eta herriko edozein leku aukeratu ahal izango da margolana egiteko.

Edonork har dezake parte eta izena egunean bertan eman beharko da, Beart-en egoitzan

Ageriko 24. Pintura Sariketa jokatu da domekan

MONIKA BELASTEGI

San Martin jaiak hurbil ditugu. Hori dela eta, Beart elkarteak urteroko Pintura Ageriko Sariketa antolatu du jaien egitarauaren barruan. Domekan izango da, eta parte hartu nahi dutenek egunean bertan eman beharko dute izena, 09:00etatik 11:00etara.

Beart elkarteak Udalaren laguntzarekin antolatutako Ageriko Pintura Sariketaren 24. Aldia jokatu da domekan, hilak 8. Lehiaketan nahi duen edonork har dezake parte eta lan bakarria aurkeztu ahal izango da. Lanok Bergaran egin beharko dira, aire zabalean, eta herriko edozein toki

aukera daiteke horretarako. Bestalde, gaia eta teknika libreak izango dira.

Euskarriei lehiaketa egunean 09:00etatik 11:00etara emango zaie zigilua. Beart elkartearen egoitzan (Bolu kalea 49). Eta aurkeztu, 13:00etatik 14:00ak bitartean, egoitza berean.

Sariketako erabakiak egunean bertan jakinaraziko dituzte, 18:30ean, eta jarraian, sari bana-keta egingo dute. Sariak dagokionez, 23 urtetik gorako partaideendako lau sari egongo dira: lehenengoak 481 euro eta trofeoa jasoko ditu; bigarrenak, 361 euro eta trofeoa; hirugarrenak, 240 eta trofeoa; eta hiru horien artean sartu ez den bergararrak 210 euro eta trofeoa jasoko ditu. Adin horre-

tatik beherakoendako beste lau sari ere egongo dira: lehenengoak 180 euro eta trofeoa jasoko ditu; bigarrenak, 90 euro eta trofeoa; hirugarrenak, 60 euro eta trofeoa; eta hiru horietan sartu ez den lehenengo bergararrak trofeoa jasoko du.

Bestalde, lehiaketan parte hartu duten lanekin erakusketa antolatuko dute Beart elkartearen egoitzan irailaren 9tik 16ra bitartean, asteleheneetik egubakoitzera, 18:30etik 21:00etara.

SAN MARTINETARAKO TXARTELAK

Txosna batzordeak bazkaria antolatu du San Martin zapaturako. Prezioa bost euro da eta sarrerak salgai daude Arranon, gaztetxean eta Pol-Polen.



Danborradetarako entseguak hasi dira

San Martin jaietako danborradetarako entseguak joan den astelehenean, irailak 2, hasi eta irailaren 12ra arte luzatuko direla gogorarazi nahi du Udaleko Kultura Sailak.

Umeen zein nagusien danborradetarako entseguak astelehenean eguenera dira, Errege Seminarioko jolastokian. Ordutegiari dagokionez, umeen entseguak 19:00etatik 20:00etara dira, eta ondoren, 20:00etatik 21:00etara, nagusien entseguak. /M.B.

Udalak alegazioa Gabiria monumentu izendatzeari

MONIKA BELASTEGI

Uztaileko azken asteko osoko bilkuran Udalak erabaki zuen Jaurilaritzak Gabiria dorrea monumentu izendatzeko egin duen txostenari alegazioa egitea. Haren ustez, ez ditu arau subsidiarioak kontuan hartzen.


Eusko Jaurilaritzako Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordeak Gabiria dorrea monumentu izendatzeko egin duen espediente alegazio epean zegoela, alegazioa egitea erabaki zuen Udalak uztaileko azkeneko osoko bilkuran. Udalak dorrearen babes eremua elkarrekin adostea eskatu dio Jaurilaritzari.

Jaurilaritzaren dokumentuak Gabiria dorrea eta haren ingurua mugatu egiten ditu babespen area gisa. Muga horrek Tavex lantegiaren lur eremua gainditu egiten du eta, horrez gain, Udalak alegazioa egitea eragin duen beste puntu bat ere jasotzen du. Jaur-

lartzaren dokumentuak dio arau orokor gisara "dagoeneko eraikitako industria eraikuntzek egun dituzten bolumen baldintzak kontsolidatzen" dituztela. Eta ondorioz, ez da aurreikusten eraikuntza berririk egon daitekeenik, eta lurzorua publiko gaur egun dagoenera mugatzen da.

UDALAK ETXEBIZITZETARAKO AURRE IKUSITA

Eta horren ildotik, ondokoa argitzen du Udalak alegazioan: Gabiriako zona industria erabilerrako hiri-lur bezala kalifikatuta dago arau subsidiarioetan. Eta eraikitako industriak kontsolidatzeaz gain, etorkizunean etxebizitzak eraikitzeko gune gisa aurreikusten da. Horrez gain, dokumentua jaso aurretik arau subsidiarioak berrikusteko prozesuari ere hasiera emana zaio la adierazten du Udalak alegazioan, eta han, Gabiria dorrea babestea jasota dago, gune libre batez inguratuta.



ARTXIBOA

Monumentu izendapenak dorrea eta haren ingurua hartzen ditu kontuan.

Udako kultura emanaldietan 3.100 herritar aritu dira

MONIKA BELASTEGI

Uztailean eta abuztuan hainbat kultura emanaldi izan dira Udako Gauak deitutako kultura eskaintzan. Aurreko urteetan bezala, uda ondoren ekitaldien gaineko balorazioa egin du Kultura batzordeak.

Orokorrean ekitaldien zein parte hartzearen gaineko balorazio positiboa egin du Kultura batzordeak.

Alde batetik, uztailean, izandako musika eta dantza emanaldiak aztertu dituzte. Egubakoitz gauean egin diren Espoloko jazz kontzertuen kasuan ondo joan direla aipatu dute, baita Oihulari Klown taldeak eskainitako kale antzerkia ere. Uztailean, denetara, zazpi musika emanaldi, antzerki emanaldi bat

eta dantza saio bat izan dira udako gauak alaitzen.

AULKIAK AURREZ OKUPATZEAGATIK, HAINBAT KEXU

Abuztuari dagokionez, bost film emanaldi egin dituzte San Martin plazan. Kultura batzordeak egindako balorazioan jasotzen duenez, hainbat herritarrek zinema uztailean nahiago luketela adierazi diete, abuztuan herritik kanpora izaten direlako.

Horrez gain, plazan jarririk aulkien gaineko kexuak ere jaso dituzte eguenerako film emanaldietan, hainbatek aulkia okupatu eta inor jarri barik denbora luzean egoten zirelako, beste batzuk zutik zeuden bitartean.

Uztailean eta abuztuan eskainitako musika, antzerki, dantza eta film emanaldietako gastua 21.500 euro ingurukoa izan da.

IRAILAREN 14an BERGARAKO SAN MARTIN FERIA

eta

- GIOKELAko harakinek antolatutako, BERGARAKO ODOLOSTE DASTAKETA.
- DEBAGOIENAKO OKELA GISATUAREN III. LEHIAKETA.

Eta iluntzean,

HARAGI AFARI HERRIKOIA

Seminario Zaharreko patioan, 21:00etan

Txartelak salgai

L.M. REZOLA Harategia
Matxiategi, 7

JON LETURIA Harategia
Pedro deuna, 24

URCELAY Harategia
Ibargarai, 16



Zer jan, hura izan!

Eta harategi hauetan

HARAGI AFARI HERRIKOIRAKO

2na AFARIKO 2 SARIren

ZOZKETA

ZAHARREN ETXETIK



Mercé Pérez soziologo katalanak joan den urteko Kultur Hamabostaldian egin zuen berbaldiko irudia.

“Osasun integrala” aztertuko dute San Joxepeko Kultur Hamabostaldian

EDU MENDIBIL

San Joxepe elkarteko zuzendaritzako kideak hasi dira dagoeneko urrian izango den Kultur Hamabostaldiko programa gertatzen. Aurten, *Osasun integrala* izango da jorratuko duten gaia, eta, aurreko aldietan moduan, gai horren inguruko mahai-inguruak eta beselako ekitaldiak antolatuko dituzte.

Kultur Hamabostaldia urriaren 8an hasiko da eta, *Osasun integrala* lelopean, osasunaren alderdi fisiko, psikiko eta soziala aztertuko dituzte. Aurreko urteetan moduan, maila handiko hizlariak ekarriko dituztela aurreratu dute San Joxepeko lagunek. Aurten ere mahai-inguruak, kultura ekitaldiak, lehiaketak, herri bazkariak eta irteerak izango dira Antzuolako eta Bergarako erretiratuen eskutik. Datozen egunotan programa guztiz zehaztuta izatea espero dute antolatzaileek. Izan ere, abuztuko oporren

aurretik hasi zen Antolaketa batzordea batzarretan hamabostaldia VI. aldia finkatzeko.

KARTEL LEHIAKETA: EPEA EGUAZTENERA ARTE ZABALIK

Antzuolako eta Bergarako erretiratuek hamabostaldia karta aukeratzeko lehiaketa deitu

Argazki Lehiaketa, abian

Kartel Lehiaketarekin batera, Argazki Lehiaketa ere deitu du San Joxepeko. Zuri-beltzeko zein koloreko kategoriak bereiztuko dituzte eta bakoitzean hiru sari banatuko dituzte, 120, 90 eta 60 eurokoak, hain zuzen ere. *Osasun integrala* landu beharko dute argazkizaleek erretiratueta. Lanak jasotzeko epea irailaren 23an amaituko da.

dute dagoeneko. Lanak entregatzeko epea irailaren 6tik 11ra bitartean izango da zabalik eta irabazleak 600 euro (100.000 pezeta) jasoko ditu sari gisa.

Baldintzei dagokienez, teknika librea (*collage*, pintura, argazkiak...) erabili ahal izango da kartela egiterakoan eta lanen neurria 40x60 cm izango da. Bestalde, parte hartzaile bakoitzak, gehienez, hiru lan aurkeztu ahal izango ditu. Derrigorrezkoa izango da kartelean testu hau azaltzea: *Antzuola eta Bergarako jubilatuen VI. Kultur Hamabostaldia. 2002ko urria*. Era berean, beheko aldean *Osasun integrala* jarri beharko da. Ohikoa denez, jasotako lanekin erakusketa egingo dute San Joxepe elkartean. Kartel irabazlea urriaren 4an aurkeztuko dute eta urriaren 4tik 10era bitartean erakusketa irekiko dute San Joxepeko egoitzan, Boni Laskurain kalean. Joan den urtean, Jose Antonio Laskurain izan genuen Kartel Lehiaketako irabazlea. Iaz, erretiratuen partaidetza gizartean izan zuten aztergai Kultur Hamabostaldian.



Hondarribiara irteera martitzenean

San Joxepekoek Hondarribiara joateko txangoa antolatu dute datorren martitzenerako, irailaren 10erako. Goizeko zortzietan irtengo dira autobus geltokitik eta Hondarribiara heldutakoan oinez igoko dira Guadalupera. Giro ona izango dute han, Hondarribia jaietan murgildurik dugu-eta. Horren ondoren, 14:00ak aldera, Irunen bazkalduko dute. Itzulera, berriz, 18:30ean izango da. Joateko interesa dutenek San Joxepen bertan egin dezakete izenematea. Prezioa 15 euro da. Argibideak eta izenematea 943 76 30 09 telefono zenbakian.

ZAHARREN ETXOKOTIK

Iñaki Eguren

ERRETIRATUA

Hiru urtez San Joxepeko zuzendaritzan jardun du Iñakik, diruzain. Ia egunero hurbiltzen da erretiratuen egoitzara. Joan den zapatuan, 69 urte bete zituen.

Zer moduz abuztuko oporrrak?

Eguraldi kaskarra izan arren, ondo ibili gara. Bergaran egon naiz eta irteeraren batzuk egin ditugu. Erretiratuta gaudenok badaukagu urtean barrena hor zehar joateko aukera: urrian, Benidormera joango naiz, ziurrenik, eta Santurtzitik Portsmouthera itsasontziz joateko asmoa ere badaukat.

San Joxepeko zuzendaritza laga ondoren, lasaiago?

Ez pentsa. Hemen beti daukagu zerbait egiteko. Zuzendaritza utzi arren, boluntario



taldean dihardut eta orain buru-belarri hasiko gara Kultur Hamabostaldia gertatzen. Gustura egiten den lana da, giro ona dago-eta gure artean. **Aurten Realak, zer?**

Itxaropena daukat goian ibiliko dela, baina ez lehen partidua irabazi dutelako. Talde ona daukala uste dut.

U
UNIFE KOOPERATIBAKO KIDE

MUJIKA FERRETERIA

BERGARAKO ENPRESA ETA HERRITARREN ZERBITZURA

Bidekurutzeta 8. 943 76 28 67. BERGARA

E GUREN
H INTURAK

Pintatze lanak orokorrean

Irala kalea z/g
Tel. eta faxa: 943 76 33 01

MIZPILDI



OKINDEGIA

Matxiategi 1. 943 76 72 73. Mizpildi 8. 943 76 12 32. BERGARA

BONOFOTOA



MIGUEL ANGEL ELKOROBEREZIBAR

Zein bi etxetako begiratokia eta leihoak dira honakoak?

GALDEDEBALDE

1.

Zenbat agente ditu Bergarako Udaltzaingoak gaur egun?

- A/ 17.
- B/ 14.
- C/ 22.

2.

Ageriko pintura lehiaketaren zenbagarren aldia izango da domekako?

- A/ 24.a.
- B/ 32.a.
- C/ 20.a.

3.

Zein da Bordeleko Girondins futbol taldeko entrenatzailea?

- A/ Roger Lemerre.
- B/ Luis Fernández.
- C/ Elie Baup.



Super BMn emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

ASIER ARIAS sendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, XXXXXX! Galderen erantzun zuzenak: Bonofotoa: Ezkerrekoa Artekale kalean eta eskumakoa San Pedro kalean / Galde debalde: 1-B, 2-C, 3-A.



BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1/ 2/ 3/

Ekarri txartela **MARTITZEN EGUERDIRAKO BERRIGARARA!**

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA


Suchard Milka txokol.

125 gr.

0,67 €

111 pezeta

Super BMn beti eskaintzarik onenak!



E.M.

PINTOREBERGARARRAKGAUR

Francisco Leturia

EDU MENDIBIL

Gaztetatik margotzeko zaletasuna izan duela diosku Francisco Leturiak (Bergara, 1924): "Neure kontu hasi nintzen eta ondoren Simon Arrietaren estudioan, Agirreolearen etxean, hain justu. Miguel Okina eta Fernando Azkar-gortarekin batera ibiltzen nintzen sasoi hartan". Oraindik ere egunero lau bat orduz pintatzen du, etxean daukan estudioan. Pintura klasikoa atsegin du eta erretratuak, paisaiak eta natura hilak egiten ditu nagusiki. Rembrandt, Modigliani eta Antonio López pintoreak gustatzen zaizkio.

Ahal duen bakoitzean beste batzuen erakusketak ikustera joaten da. Estatuko toki askotan erakutsi du bere lana, Diputazioak antolatutako erakusketa kolektiboek esker. 1973an, Bilboko Arte Ederren museoan izan zen Euskal Margolaritzaren erakusketan parte hartzeko Franciscoren lan bat aukeratu zuten. Gabonetan Bergarako pintoreek antolatzen duten erakusketan parte hartzeko ohitura dauka: "Pintura borroka moduko bat da niretako. Haserreak eta une atseginak tartekatzen dira, baina asko disfrutatzen dut".

"Pintura borroka moduko bat da: haserreak eta une atseginak tartekatzen dira"

OGIZUN
koop. elk.
okindegia



San Pedro 21
BERGARA
943 76 20 49

Zubillaga 10
OÑATI
943 78 24 13

Ibargarai 44-46
BERGARA
943 76 45 53

Zuri Beltz margoak

Barnealde eta kanpoaldean erreforma

Pintura zerbitzu osoa

Moketak

943 76 14 60

607 447 494

943 76 59 59

Bergara

Sugoi

**ERLOJUAK,
ARTIKULU
ELEKTRONIKOAK,
KALKULAGAILUAK...**

Irizar pasealekua 2 behea
943 76 59 54 BERGARA

ETXAGI
JATETXEA

AFARIAK, BATAIOAK,
JAUNARTZEAK,
EGUNEROKO MENUA,
GOSARIAK,
BAZKARIAK...

Masterreka, 8
BERGARA
943 76 53 12



BERGARA
Hodei Gomez de Balujera
Abuztuaren 3an 2 urte.
Zorionak! Etxekoak.



BERGARA
Itsaso Kalbano
Irailaren 5ean 5 urte.
Urte askotarako!
Andoni.



BERGARA
Mainer Uribe
Irailaren 5ean 7 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Arantza Arizaga
Irailaren 7an 12 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Maddi Arzelus
Abuztuaren 29an 3 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



ELGETA
Olaia Jimenez
Irailaren 1ean 27 urte.
Zorionak danon partez!
Ana, Susana eta Aitzol.



BERGARA
Leire Aperribai
Abuztuaren 20an 7 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Leire Agirre
Irailaren 8an 5 urte.
Urte askotarako!
Saioa eta etxekoak.



BERGARA
Biken Larrañaga
Irailaren 4an 4 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak eta Ane.



BERGARA
Ainhoa Mardaras
Abuztuaren 20an 7 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Unai Barragan
Irailaren 3an 4 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak, Oier eta Olatz.



BERGARA
Christian Moreno
Irailaren 12an 6 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak eta Miriam.



Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak
BERRIGARAren bidez! Ekar ezazu bere argazkia*
eta emaitzazu ezusteko ederra! **Doan!**

*Argazkiaren neurria, gehienez: 13 x 18 cm.

Pertsona bera bakarrik nahiz taldearen barruan agertzen den argazkia ekar dezakezu.
Argazkia oso-osorik jaso ahal izango duzu, zorion agurra BERRIGARAren agertu ondoren.
Argazkia, urtebetetze eguna baino bi aste lehenago ekartzea komeni da.

Adi!

Argazkiak emateko lekuak:

Bergara: Berrigara, Irizar jauregia, Barrenkalea 33

Antzuola: Udal Liburutegia, astelehenetan 17:00etatik 19:00etara

Elgeta: Erosle-Balxongua

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi,
txerri, bildots,
untxi eta
baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA
Tel. 943 76 15 09



943 76 20 61
BERGARA

BEHEKO TABERNA

Menestra
eta untxia dira
gure berezitasunak

ANGIOZAR
Tf.: 943 76 55 74

IKUSBI

ALKANDORAK,
JERTSEAK, BAKEROAK
ETA OSAGARRIAK

Irala 5
BERGARA
943 76 53 09



gizon & emakume

Barrenkalea 35
BERGARA




LASAGABASTER

www.lasagabaster.com



SHOTOKAN KARATE-DO



• Karatea ikasi nahi duten guztiei gogoratzen diegu, denboraldi honetako klaseak hil honen 9an, astelehena, hasiko direla, ondorengo orduetan:

Umeak: 1. txanda, 17:30etik 18:30era

2. txanda, 18:30etik 19:30era

Nagusiak: 19:30etik 20:30era

• Ikastaroak **Joxean Iñarra** irakasleak emango ditu, titulu hauen jabea:

Euskadiko selekzioko prestatzaile fisikoa

Gipuzkoako selekzioaren hautatzailea

Soin hezkuntzako lizentziatua (INEF)

Karateko gerriko beltza 2. Dan-a

Ninjitsu gerriko beltza 2. Dan-a

Karate entrenatzailea

Ninjitsu entrenatzailea

Karate-epailea


Eta, gainera, Karateari buruzko material didaktikoa gertatzeko Debagoieneko Mankomunitatearen beka lortua duena.

Harremanetarako deitu 615 79 90 78 telefonora

edo zatoz Ipintza Institutuko DBH eraikuntzako

gimnasiaora entrenamendu orduetan.

Shotokan txapeldunen eskola!



Gida Komertziala 2003, abian!

Aurten, berritasunez beteta

- Zerbitzu gehiago...
- Diseinu berria...
- Publizitate aukera handiagoak...

2003. urteko Gida Komertziala prestatzen hasi gara. Laster pasatuko gara zure denda, enpresa edo komertziotik.

Hurrengo egunotan, **Eider Lete** publizista izango da zurean.

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

Eider Lete

INFORMAZIO GEHIAGO: 943 76 92 71 edo 943 71 23 91



Kontuola

ANTZUOLA / Egubakoitza / 2002ko irailaren 6a / 124. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Irizar • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: kontuola@goiena.com

Jantokia estreinatuko dute Herri Ikastetxean ikasturte berriarekin

AINTZANE IRIZAR

Datorren astelehenean, irailak 9, hasiko dute Herri Ikastetxe-ko ume eta neska-mutikoen ikasturtea. Aurten berritasun garrantzitsu batekin hasiko dute, gainera, ikasturte hori; izan ere, eskolan bertan bazkaltzeko aukera izango dute hala nahi duten umeek.

Oraingoz goizez bakarrik izango dituzte eskolak Herri Ikastetxe-ko umeek. Hilaren 16an hasiko dira goiz eta arratsalde, eta orduantxe, hain zuzen ere, estreinatuko dute jantokia.

Hogeita lau umek eman dute izena, oraingoz, jantokian bazkaltzeko. Horietatik bederlatzi Haur Hezkuntzakoak dira, eta gainerako hamabostak Lehen Hezkuntzakoak.

Janaria prestatuta ekarriko dute; Auzo-Lagun enpresa arduratuko da bazkaria prestatzeaz. Bazkalordurako hiru langile kontratatu ditu Auzo-Lagun enpresak, eta umei jaten emateaz eta horiek zaintzeaz arduratuko dira.

Esan bezala, 24 ume hasiko dira, oraingoz, jantokian bazkaltzen, baina 40 bat umerendako tokia dago. Hortaz, aurrera begira ume gehiagok ere badaukate izena emateko aukera.



Hogeita lau umek eman dute izena jantokian bazkaltzeko.

GURASOENDAKO BATZARRA

Pausoka gurasoen elkarteak batzarra egingo du datorren astean; eskolan bertan egingo dute batzarra, martitzenean, irailaren

10ean, 18:30ean. Batzar horretan jantokiaren gaineko azalpen guztiak emango dituzte. Dagoeneko jantokirako izena emanda daukaten umeen gurasoei ez ezik, ize-

na emateko interesa dutenei ere zuzenduta dago batzar hori. Izena eman nahi izan eta batzarre-joaterik ez dutenek Pausokako kideekin berba egin dezakete.

ANTZUOLA ETXEGINTZA

Irailaren 30era arte izena emateko aukera

AINTZANE IRIZAR

Antzuola Etxegintza hasi da dagoeneko hirugarren etxebizitza multzoa eraikitzen. Etxebizitza horietako bat lortu nahi dutenek abuztua ezker dute izena emateko aukera, eta irailaren 30ean bukatuko da epea.

Irailaren Debagoieneko Mankomunitateko Suradesa erakundeak aholkularitza zerbitzua eskainiko die eraikiko dituzten

hamasei etxebizitzetako bat erosi nahi dutenei. Udaletxean bertan egokituko dute horretarako bulegoa, eta beharrezko informazio guztia eskainiko diete interesa duten guztiei. Irail osoan, egubakoitzero egongo dira Suradesakoak, 08:00etatik 14:00etara. Zerbitzu hori erabili nahi dutenek alde aurretik txanda eskatu beharko dute, udaletxeko telefono zenbaki honetara deituta: 943 76 62 46.



Irailaren, egubakoitzero, aholkularitza zerbitzua eskainiko du Suradesak.

LABUR

Finalista Eguna ospatuko dute domekan, hilak 8

Irailaren 8an, domekan, ospatuko dute Finalista Eguna, Arrola mendi elkartearen antolatuta. 09:00etan irtenko dira plazatik, eta mendi ibilaldia egin ostean, Trekutze-ira iritsiko dira. Eta ordurako prest izango dute salda eta txorizoa, nahi duten guztien dako.

Liburutegiak ordutegi berria dauka irail osoan

Irailaren ordutegi berria izango du liburutegiak. Astelehene-egunera 17:00etatik 20:00etara egongo da zabalik. Egubakoitzetan, berriz, goizez bakarrik zabalduko dute, 11:00etatik 14:00etara. Urri-aurreraren berriz, ohiko ordutegi-izango du: 17:00etatik 20:00etara egongo da zabalik.

Gaur, egubakoitza, frontoi aurrean egingo dute azoka

Uztailaren aurreratu gizenen moduan, irailaren aurreraren frontoi aurreko aldean egingo dute egubakoitzero azoka. Gaur, irailak 6, ziren lehen aldiz azoka toki horretan egitekoak. Saltzaileek behin eta berririo azoka tokiz aldatzeko eskaerari erantzunez erabaki zuten Udalak aldaketa hori.

Anelkarrek bidali du Senegalera batutako materiala

Joan den astean bidali zituzten, itsasontziz, herriaren batutako arropa eta eskolarako materiala Senegalera. Bestalde, Canudosorako (Brasil), guztira, 6.981 euro batu zituzten herriko jaietan, tonbolan batutakoari dirulaguntzak batuta. Herriaren guztiei esker eman nahi izan dizkie Anelkarrek.

ELKARRIZKETA

ANDONI AZKARGORTA/BERGARAKO ERREGIONAL MAILAKO ENTRENATZAILEA

“Aldaketa beharra sentitzen nuen, nahiz eta Antzuolan gustora egon”

Urte mordo egin ditu Andonik futboleko entrenatzaile Antzuolan. Eskolako umeak, gazteak, kadeteak eta erregionalak entrenatu ditu. Berraondoren botilero ere behin baino gehiagotan ikusi dugu.

Zelan eta noiz hasi zinen futboleko entrenatzaile?

Hamalau urte neuzkala hasi nintzen; Herri Ikastetxetik deitu zidaten, entrenatzaileak behar zituztela-eta. Horrelaxe hasi nintzen.

Oso gazte hasi zinen, hortaz.

Bai; beti gustatu izan zait futbola, ez jokatzera bakarrik, baita jokoa bera aztertu eta ondorioak ateratzea ere.

Eskolakoekin hasi eta beste hainbat talde entrenatu dituzu gero, ezta?

Bai, gehientsuenak: gazteak, kadeteak eta erregionalak.


Hasita zaude Bergarako erregionaleko taldea entrenatzen. Zer moduz?

Ondo, oso inpresio ona izan dut. Antzuolan beti jende bera entrenatzen ibili naiz, eta, gainera, denok ezagunak gara. Jende aldatze hori oso ondo etorri zait; zerotik hasten zara lanean, jendea ezagututa. Horrelako zerbaiten falta sumatzen nuen, aldaketa baten beharra neukan. Hala ere, horrek ez du esan nahi Antzuolan gustura ibili ez naizunik, alderantziz, oso gustura egin dut lan han.

Iazko denboraldia nahiko txarra izan zen orain entrenatuko duzun taldearendako. Lan zaila egokitu zaizu?

Ez zen, ez, denboraldi ona izan; erregionaleko lehen mailatik bigarrenera jaitsi zen. Esan didatenez, ez ziren behar bezala entrenatzen eta ohitura batzuk hartu behar dituzte. Dena dela, kalitatezko jokalariek daude.

Taldeak zelako jokoa egitea: nahiko zenuke?



AINTZANE IRIZAR

“Irrikan nago Antzuolaren aurkako derbia jokatzeko, motibatu egiten nau”

Talde aurkaria presionatzea gustatzen zait, eta ahalik eta goren jokatzera. Aurkarien atletik gertu balaioa lapurtzen saiatu eta ahalik eta azkarren erasotzea. Labur esanda, joko azkarraren bitartez aukerak sortzea gustatzen zait. Aurtan, hortaz, derbi interes-

“Taldea aurkaria presionatzea gustatzen zait, eta, azkar jokatzera, aukerak sortzea”

garriak izango ditugu?

Bai, eta irrikan nago, gainera. Motibatu egiten nau Antzuolaren aurka jokatzera, morbo pixka bat ere badauka. Gainerako partidua guztiak irabaz ditzala Antzuolak, baina gure kontra, behintzat, ez.

KIROLA

Kirol eskaintza Udalaren eskutik

AINTZANE IRIZAR

Urtero moduan, ikasturte hasierarekin batera, hainbat kirol praktikatzeko aukera eskainiko du Antzuolako Udalak. Gimnasia, aerobika eta hirugarren adinekoei zuzendutako kirol jarduerak daude aukerak, eta irailaren 16an hasiko dituzte saioak.

Datorren astelehenetan, irailaren 16an, hasiko dituzte Antzuolako Udalak antolatutako gimnasia, aerobik eta hirugarren adinekoentzako kirol eskaintzak. Horietako ikasturtearen baten parte hartu nahi dutenek datorren eguzte bakoitzean eman beharko dute izena, irailaren 11 baino lehen, hain zuzen ere. Udaletxeko bulegoetan eman dezakezue izena, 08:00etatik 15:00etara bitartean.

Matrikulagatik 18 euro ordaindu beharko dira, eta hileroko ordaindu beharreko kuota 15 euro izango da. Ikasturtea bukatzen dutenei, matrikulagatik ordaindutako diru kopurua itzuli egingo diete. Bestalde, izena eman baina izenematea bertan behera laga nahi dutenek irailaren 25a baino lehenago jakinarazi beharko dute udaletxeko bulegoetan bertan.

Iazko ikasturtean kirol eskaintza horietakoren baten ibili zirenek ere izena eman behar dute.

EGUNAK ETA ORDUTEGIAK

Astelehenetan, eguztenez eta eguztenez izango dira aerobik, gimnasia eta hirugarren adinekoentzako kirol saioak, urteroko tokietan.

Hirugarren adinekoentzako kirol eskaintzari dagokionez, ordutegi bakarra dago, talde bakarra osatuko dute, hortaz. 10:15etik 11:15era izango dira kirol saio horiek.

Gimnasia saioak, berriz, arratsaldean izango dira, 19:15etik 20:15era, hain zuzen ere.

Aerobik ikasturteari dagokionez, berriz, aukera bat baino gehiago daude ordutegiari dagokionez. Honako ordutegi hauek daude aukeran: 09:15etik 10:15era eta 18:15etik 19:15era. Bazegoen beste aukera bat ere, 20:15etik 21:15era, hain zuzen ere, baina dagoeneko osatu dute talde hori, eta ez dago jende gehiagorendako tokirik.

Azkenik, aipatu beharra dago ordutegi bakoitzerako, gutxienez, 10 laguneko taldeak osatu behar direla eta gehienez, aldiz, 20 lagun hartuko dituztela talde bakoitzerako.

LABUR

Antzuolako Kirol Elkarteak urteko kuota igotzea erabaki zuen urteko batzarrean

Horixe izan zen joan den uztailaren 29an egindako urteko batzar orokorrean hartutako erabaki nagusienetako bat. Denboraldi berrian hamabost euro ordaindu beharko ditu bazkide bakoitzak. Aipatu behar da oso jende gutxi parte hartu zuela urteko batzar orokorrean.


Bestalde, Tomas Ormaetxeak jarraituko du kirol elkartearen presidente lanetan. Aipagarria da, bestetik, lau lagunek laga egin dituztela elkartearen zuzentzaile karguak, honako hauek, hain zuzen ere: Mikel Larreak, Juan Miguel Pagaldaik, Tomas Longaresek eta Jose Manuel Arregik. Orain, berriz, honako hauek osatzen dute Zuzendaritza batzordea: Pablo Olalde, Jose Angel Fernandezek, Patxi Godoik, Alfonso Castrok eta Tomas Ormaetxea presidenteak.

LARREA
TABERNA
Kalebarren 17
ANTZUOLA

Igor eta Txomin

Margoak orokorrean
ANTZUOLA 609 157 131
BERGARA 609 150 164

Tomas Gezalaza
Apainketarako eta industriarako pinturak
Paper margotzak
Moketak eta tapizatuak
Kalegoi 21
Tf. eta faxa 943 76 64 07
Poltsikokoa 616 277 999
ANTZUOLA / BERGARA

GAILUR
taberna eta gozotegia

Buztinzuri 13 ANTZUOLA
Tf. 943 78 70 32

Tomas Gezalaza
Zoruen kutxilatua eta barnizaketa
Kalegoi 21
Tf. eta faxa 943 76 64 07
Poltsikokoa 616 277 999
ANTZUOLA / BERGARA

Goibekokale

ELGETA / Barikua / 2002ko irailaren 6a / 108. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Oxel Erostarbe • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: goibekokale@goiena.com

Kiroldegia eta Bolatokiko taberna, lehengora itzuli nahian

OXEL EROSTARBE

Domeka eguerdian, bete-beteta zegoen Bolatokia. Izan ere, 13:00etarako luncha iragarri zuten ugazaba berriek. Datozen bi urteotan Bolatokiko tabernaz eta jatetxeaz eta kiroldegiko instalazioak behar bezala edukitzeaz arduratuko dira ugazaba berriak.

Eider Sarasuak, Iratxe Belarrek, Garbiñe Ormaetxeak, Maier Irabalek eta Sonia Canasek jardungo dute lanean kiroldegian eta Bolatokian. Bost emakume horiek badaukate eskarmentua ostalaritzan. Eiderrek, Iratxek eta Soniak Sukaldaritza ikasketak egin zituzten eta Garbiñek eta Maiderrek ere jardun izan dute ostalaritzan lanean.

Bost emakume horiek urte birako kontratua sinatu dute Udalarekin, naiz eta luzatzeko aukera izango duten.

Oraingoz, gauzak oso ondo hasi dira euren lanarekin. Taberna itxuraz aldatu dute; paretak margotu eta mahai gehiago jarri dituzte horretarako. Euren asmoa da negozioa Bolatokiko lehenengo ugazabek eraman zuten antzera



Domekan jende ugari inguratu zen Bolatokiko ugazaba berriek eskaini zuten lunchera.

eramatea. Garrantzi handien jate-txeari eman nahi diote. Astean barrena eguneko menuak eman-gotuzte eta asteburuetan menu bereziak. Karta ere egongo da,

enkarguz. GOIBEKOKALEtik, zorte on eta aurrera, boskote!

AEROBIC ZERBITZUA, ABIAN

Beste gai bati eutsiz, Kirol batzordeak

aerobik zerbitzua jarriko du abian. Martitzenetan eta egueneetan izango da, 20:00etatik 21:00etara bitartean. Udaletxean eman behar da izena.

LABUR

Astelehenean hasiko da ikasturtea eskolan

Herriko eskolan astelehenean ekingo dio ikasturteak. Lehen eskola-egun hori berezia izango da bi eta hiru urte arteko 13 neska-mutikoendako. Eskolaren dako ere urte berezia izango da, aspalditik eskatzen ziharduten jangela gertu egongo da eta bigarren aste-rako. Eskolatik adierazi digutenez, igeltserotza lanak egin da daude eta sukaldia osatzea bakarrik geratzen da.

Herriko dendetan batuko dituzte erabilitako pilak

Aurrerantzean, zabor ontzietan beharrezko herriko zenbait dendetan jarri dituzten kutxa batzuetan batuko dituzte erabilitako pilak. Erosle, Vivo, Aldi eta Irama dendek jasoko dituzte erabilitako pilak Elgetan.

Kutxa berriek beira edo papera birziklatzera eramateko ontzietan zeuden kutxak ordezkatuko dituzte. Erabilitako pilak denda horietan utzi beharko ditugu.



Batasunaren aldeko pintadak

Batasuna legez kanpo uztearen aurkako pintadak agertu dira kultura etxe, medikuaren kontsultako eta kiroldegiko paretetan. Horiez gain, arkuaren atzeko aldean ere agertu dira pintadak. Udaltik jakinarazi digutenez, aurreko egun gauean egin-dako pintadak ahal den bizkorren garbituko dituzte. Pintadok garbitzeko 600 euro baino gehiago ordaindu beharko dituzte. Batasuna legez kanpo utzi duten arren, Elgetako zinegotziek euren batzordeekin jarraitzen dute. /O.E.

AUTOEN ABIADURA

Semaforoak jartzearabaki du Udalak

O.E.

Abuztuan barrena semaforoak eta autoek abiadura murriz dezaten jarriko dituzten oinezkoen babesguneak non jarri aztertzen jardun ondoren, dagoeneko Udalaren eskuetan dago teknikari-egindako txostena.

Diputazioaren eta Udaleko teknikari-egindako txostena, eta urri hasieran hasiko dituzte semaforoak eta oinezkoen babesguneak jartzeko lanak. Lan horiek urtea amaitsu

aurretik bukatuta egotea espero du Udalak.

Semaforoak eta oinezkoen babesguneak jartzearabaki duen aurrekontua ordaintzeko Diputazioaren laguntza izango du Udalak.

Herriko eraikinetako eta kale-etako irisgarritasuna ere aztertuko dute teknikari-egindako txostena. Irailaren erdialderako Udalaren eskuetan egongo da gai horren inguruko txostena. Litekeena da zenbait lan semaforoei eta oinezkoen babesguneekin batera egitea.

JARDUNABALKOITTIK



Oxel Erostarbe

Oporretan
ogi billa

Abuztuan, turistek hartu bihar ei zeben gure herrixa, baiña etorri dana ez da bueltauko! Ez da bueltauko Mendi museua zabaldua be. Ezta gramolako triumfadoriak zuzenian ekarritta be. Ezta... bueno sikiera ogixa erosi bazeinken. Hola be ez!

Turistak ez dira etorriko, eta herritarrok egin geinken onena ospa egittia. Urteroko aberixian eragiñez kalia datozen olatuek eruan aurretik, ospa!

Abuztua herrixan darenek zer pentsau emoten doste. Euskadi tropikalian izan dogun euri sasoiakin, tunbona barrixa plazara atara barik gorde biharra izan dabe. Saiatu ei dira egualdixa erosten. Ezin! Izan be, saltzailliaren dendia itxita egon da. Bezero ei diran lekuak, bezero garan lekuak be bai. Urtia abdominalak gertatzen igaro dabenei be ederra faenia, hondartzara ezin juan, gimnasiua itxitta eta horrenbeste siestakin potolotu. Liburuak irakurtzian pentsau dabena be egunkarixakin korformau bihar. Zerbitzuak be itxita.

Heldu da iraila eta bakoitza berera.... Kafia han, konprak bestian eta afaltzera betikora. Hurrenguan be oporrak batera hartuko dittue, moldatzen garan bezeruak gara.

KIROLA

Arantzeta El Cortijoko finalera
Uberari 22-14 irabazita


O.E.

Eñaut Arantzeta eta Xabier Uberaren arteko pelota partida izan zan zapatuan El Cortijon (Errioxa). Finalerako txartela zeguán jokuan.

Bi lehengusuek mailla parekua erakutsi zeben partidu hasieran. Sei kuadroren barruan egin bihar izan zeben pelotan. Hori erabakigarria izan zan. Izan be, 12-12 parian juan eta gero, Uberak birritan pasako marrik atzera bota zeben pelotia.

Handik aurrera Arantzeta izan zan nagusi amaierara arte. Partidua 22-14 amaittu zan.

Eñautek bihar jokatu dau finala El Cortijon. Partidua 18:30etan izango da eta Berasaluze berriztarra izango da Eñauten aurkarixa finalian.



Partiduan zihar tantu bikaiñak egin zittuen bi pelotari elgetarrek.

LABUR

Jone Muxika,
15. Espainiako
Txapelketan

Uztailaren bukaeran Leongo San Isidro herrian izandako Espainiako Txapelketan 15. postuan amaitu zuen Jone Muxikak. Elgetarrak lasterketa bikaina egin zuen, eta helmugan 1:31:25 egin zuen. Margarita Fullanak irabazi zuen San Isidroko lasterketa.

Xabier Arangureni dago-kionean, elgetarrak lasterketa ugaritan hartu du parte aurtengo udan. Aurrenekoen artean izatea lortu ez duen arren, lasterketa guztiak amaitzea lortu du.

Elgetako lasterketan 30. postuan amaitu zuen, Oiarzunen 46.ean eta Aretxabaletan, berriz, 49.ean. Udako posturik onena Elgoibarren egin zuen, 26. amaitu zuen han. Eta Zegaman 29. eta Atauen 32. sailkatu zen.

ZERBITZUAK

Partzuergoak
kudeaketuko du ura

O.E.

Irailaren bukaeran Udal ordezkariak egingo duten osoko bilkuran ur zerbitzuaren kudeaketa Ur Partzuergoaren eskuetan uztea erabakiko dute, seguruenik.

Zerbitzu hori Ur Partzuergoak kudeatzeak uraren prezioa garestitzea ekarriko du. Erabilitzaileok ordaindu beharreko tasak izango duen igoera, ordea, ez da horrenbestekoa izango. Udaletik adierazi digutenez, tasaren igoera urterokoaren antzekoa izango da. Gainerakoa Udalak berak ordainduko du. Kontuan hartzekoa da, era berean, ura kudeatzeak Udalarik dakartzkion zenbait lan eta gastu Ur Partzuergoak hartuko dituela.

Urritik aurrera Partzuergoaren ardura izango da ura herriko etxebizitza guztietara erama-

tea. Kaleetan barrena doan uraren sarea behar den moduan edukitzea eta konponketak egitea Partzuergoaren ardurapean egongo da. Gainera, matxurak izatekotan, 24 orduko zerbitzua dute.

Uraren kontagailuen irakurketa eta horrek dakarren lan administratiboa ere Ur Partzuergoaren eskuetan geratuko da urritik aurrera.

IRAILAREN 12AN BILERA TEKNIKARIEKIN

Datorren egunean izango den Urbanismoko batzordean Ur Partzuergoko alta eta bajako gerenteak izango dira, eurak eskaintzen duten zerbitzua azaltzen. Gai horren inguruan datu gehiago nahi duenak hantxe izango du aukera galderak egiteko.

Aurrerago, osoko bilkuran erabakiko dute uraren kudeaketa Partzuergoaren esku uztea.



Sagardo Eguna datorren zapatuan

Gaztetxiak antolatuta Sagardo Eguna izango da irailaren 14an. Aurten, sagardotegi askotako sagardua dastatzeko aukeria egongo da. Urtero moduan, arratsaldian Tortilla Lehiaketiak emongo dotsa hasiera jaixari. Parte hartzeko, elkartiak eta kuadrillak Haizean edo gaztetxian emon bihar dabe izena. Jaixaria amaierria emoteko, afarixa eta kontzertua izango dira. /O.E.

JAR EZAZU
HEMEN
ZURE
PUBLIZITATEA

Goibekokale

Aperribay, s.l.

Marmoldegi
eta granitoak

Pagatza indus. z/g.
Tel. eta faxa: 943 78 90 21


20690 ELGETA



Jesus Mari Montiel
ITURGINTZA
ETA BEROGAILUAK

Artekale 3
Mo: 656783299 Eibar
Tel: 943 70 07 19

KONPONKETAK
SUKALDE
ETA BAINUGELETAN



TAPEM S.A.

Trokelak eta estanpazioa
TROKEL PROGRESIBOETAN
ESPEZIALDUAK

Elorrio bide z/g 20690 Elgeta
Tel: 943 76 80 50 / 78 90 31
Faxa: 943 76 82 43

EROSLE

M. Asun Agirre

Salbador 26
ELGETA
Tel: 768190

ERRETRATUZAHARRA



Martokoko ikastolako ikasleak, 1977

Ikasturtea hastear dagoela eta, duela 25 urte Martokoko ikastolan hasi ziren ikasle gaztetxoek argazkia dakarzkizuegu oraingo astean. Argazkia 1978ko Inauterietan ateratakoa da, eta ikasleek hiru urte izango zituzten orduan. Honako hauek agertzen dira erretratuan, dotore-dotore mozarrotuta, ezkerretik eskumara:

Zutik: Mikel Idigoras, Osane Jiménez, Juan Luis Gallastegi, Agurtzane Lete, Maite Lazkano, Maider Martín, Maribel Soto, Edurne Barrutia andereñoa, Maria Rosario Benítez, Gemma Ortiz, Iñigo Gómez, Nuria Barrero eta Ainhoa Sanz.

Makurtuta: Kepa Mendibil, Leire Ambroi, Jose Manuel Muñoz, Aitzol Altuna, Joseba López, Elizabet Soto,

Iñaki Jauregi, Maider Luarizaiardi, Aitor Ruiz, Olatz Azkondo eta Xabier Agirre.

Argazkian Esther Castellano, Idoia Olano, Iban Agirrebeña, Iñigo Alkorta, Ana Mari Bretaña, Alex Muela eta Julen Montealegre falta dira.

Argazkia: Edurne Barrutia.


NOLA ALDATUDIRENGAUZAK

Ibargarai kalea, erabat aldatuta

Ibargarai izan da, behar bada, azken urteotan itxuraldaketa nabarmenena izan duen herriko kalea. Etxebizitza mordoa eraiki dituzte inguruan eta komertzio asko ere ipini dituzte han. Zalantza barik, asko irabazi du kaleak, eta herriko gune garrantzitsuenetakoa bilakatu da. Kalearen lehengo itxurarekin ez ahazteko, ezkerrean duzue orain dela zazpi bat urteko argazkia.



≈ 1995 Ibargarai ondoan zeuden garajeak bota zituzteneko argazkia. Justo Garate plazako etxebizitzak eraiki zituzten jarraian.



2002 Ibargarai kalea herriko gunerik bizienetakoa bilakatu da. Oraindik ere etxebizitza gehiago egiten ari dira autobus geltokiaren inguruan.

Zumelaga
JATETXEA

60 urte zuen zerbitzura!

San Antonio 5. BERGARA. 943 76 20 21

CAMACHO
Drogeria
Usaindegia

Bidekurutzeta 24
BERGARA
943 76 13 35

GURIA
Taberna

Bidekurutzeta 5
BERGARA
943 76 20 34

PINTXO eta BOKADILOK
SEKULAKO MARTXA!!

EUXEBIO II

Irala z/g
Bergara
943 76 07 92

Ikus eta egiazta itzazu Mapfreren prezioak!

SIETE 7

LÍDER

TODO RIESGO 100

	POLIZA	POLIZA*	POLIZA
FORD FOCUS 1.8 TDCI GHIA (115 ZP)	427,01 €	746,97 €	902,50 €
AUDI A4 TDI AMBITION	465,97 €	1.097,10 €	1.435,90 €
OPEL CORSA 1.7 DI SRI	384,35 €	570,02 €	695,27 €
RENAULT KANGOO 1.5 DCI EXPRESSION	450,77 €	728,57 €	857,93 €
RENAULT SCENIC 1.9 DTI ALIZE	488,44 €	954,15 €	1.193,70 €
BMW 318 TI COMPACT	505,29 €	962,27 €	1.196,29 €
CITROEN XSARA PICASSO 1.6	433,68 €	780,19 €	952,58 €
CITROEN BERLINGO 1.4 MULTIVOLUMEN	414,59 €	617,32 €	757,08 €

ADIERAZITAKO KOPURUAK BEZERO HONI DAGOZKIO: 31 URTE BAINO GEHIAGOKO EMAKUMEA, 10 URTE BAINO GEHIAGOKO GIDABAIMENAREKIN ETA %35EKO BONUSAREKIN. BESTE BONUS BATZUEN BERRI IZATEKO, GALDE EGIGUZU.
*ARRISKU OROKO ASEGURUA FRANKIZIAREKIN.

MAPFRE

Simon Arrieta plaza 3, Bergara. Tf. 943 76 18 80.

Azkarate eta Ardatza: arotz lanetan behar duzun guztia



**HORMA-
ARMAIRU**
AUKERA
ZABALA

Eta mota
guztietako
ateak.
Informa zaitez!



Ateak • Leihoak • Horma-armairuak • Tarimak • Parketak • Sukaldeak

Neurrira ebakitako tableroak • Apalak • Kajoiak • Zokaloak
Moldurak, sarrailak • Manilak • Egurrezko objetuen pintaketa



AZKARATE
AROSZTEGIA

Telleria, 19 B-0-2 B-0-3
BERGARA
Tel.: 943 76 47 19
ARETXABALETA
Tel.: 943 77 01 24

ARDATZA

Brikolaketa

Masterreka, 4 behea.
Tel.: 943 76 18 93
BERGARA



GRUPO **RKUZ** 1950-2002



Arkauz zure etxea da.



RKUZ Araba etorbidea 20 • Tel./Faxa: 943 79 23 51
ALZARIAN ARETXABAETA

ETXE MOBEL Araba Etorbidea 5 • Tel./Faxa: 943 79 41 82
MUGELAK ALZARIAN ARRASATE

RKUZ Mitarte 3 • Tel./Faxa: 943 77 04 55
SURALDE INTEGRALA ARETXABAETA **FAGOR**

RKUZ Asuncion, 1 • Tel./Faxa: 943 79 10 97
ELEKTRAGAILUAK ARETXABAETA **expert**